



## EBAZPENA

### EAE-KO OLIO-BILKETA

#### LEA/AVC 174-ZEH-2019 espedientea

##### Aurkibidea:

I. AURREKARIAK.....	2
II. ENPRESEN DESKRIBAPENA .....	8
III. MERKATUAREN AZTERKETA .....	10
1. Aplikatu beharreko araudia .....	10
2. Merkatu adierazgarria .....	10
A. Produktu-merkatua .....	11
B. Merkatu geografikoa .....	12
C. Ondorioa .....	13
3. Merkatua ezaugarritzea .....	13
A. Merkatuaren deskribapena, eskariaren ikuspegitik .....	14
B. Merkatuaren deskribapena, eskaintzaren ikuspegitik .....	14
IV. FROGATUTAKO EGITATEAK.....	16
1. Errespetuzko akordioak .....	16
2. Esleitutako eremutik kanpo zerbitzua emateari uko egitea .....	20
3. Kontratu publikoen banaketa .....	21
4. Enpresen arteko lankidetzak.....	22
V. ZUZENBIDEKO OINARRIAK .....	24
1. Ebazteko eskumena.....	24
2. Arau-hauste jarraituari aplikatu beharreko legeria .....	25
3. Lehiaren Euskal Kontseiluaren balorazioa .....	27
A. Tipikotasuna.....	27
B. Antijuridikotasuna.....	28
a. Arau-haustea xedeagatik. ....	28
b. Merkatuan dituen ondorioak .....	30
C. Arau-haustearen astuntasuna.....	31
D. Arau-hauste bakar eta jarraitua .....	32
E. Azalpen alternatiboak. Bat egiteko saiakerak .....	34
F. Arau-hausteen preskripzioa .....	36
G. Zuzeneko probak.....	40
VI. AURKEZTUTAKO BESTE ALEGAZIO BATZUEN AZTERKETA .....	41
1. Prozeduraren deuseztasuna .....	41
A. LD Eren 27. artikulua urratzea .....	41
B. Ikuskapenean oinarritzko eskubideak urratzea .....	43
2. Iraungitzea .....	44
3. Udalek ez dituzte kontratu asko lizitatu .....	45



4. Ez dago lehiaren aurkako akordiorik .....	46
5. Lehiaren aurkako ustezko jokabidearen hasiera-data.....	48
6. Eragindako merkatuaren negozio-bolumena kalkulatzeko.....	48
VII. ZEHAPENAK ZEHAZTEA .....	49
1. Auzitegi Gorenak adierazitako irizpideak .....	49
2. Zehapena erabakitzeke metodoa.....	50
3. Jokabidearen balorazio orokorra egiteko irizpideak .....	51
4. Jokabidearen banakako balorazioa egiteko irizpideak.....	52
5. Zehapen-tasa eta zehapena egokitzea .....	53
VIII. ERANTZUKIZUNA .....	55
IX. BESTE ESKAERA BATZUEN AZTERKETA.....	55
1. Frogak.....	55
2. Konfidentzialtasuna.....	57
X. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA.....	57

### Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea

Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea

Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), 2020ko urriaren 16ko bilkuran (adierazitakoek parte hartuta), ebazpen hau eman du LEA/AVC 174-ZEH-2019 EAE-KO OLIO-BILKETA espedienteari buruz.

## I. AURREKARIAK

1. 2016ko martxoaren 14an, Lehiaren Euskal Agintaritza/Autoridad Vasca de la Competencia erakundearen erregistroan (aurrerantzean, LEA/AVC) sartu zen salaketa bat, AAA jaunak aurkeztua, EKO Gasteiz SL (aurrerantzean, EKO GASTEIZ) enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz. Salaketa horren arabera, litekeena zen merkatu-banaketa izatea Euskal Autonomia Erkidegoko landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko kontratu publikoetan. RAFRINOR SL (aurrerantzean, RAFRINOR) eta ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL (aurrerantzean, EKOGRAS, enpresaren izen komertziala) enpresak arduratzen dira olio biltzeaz eta kudeatzeaz.

2. 2016ko martxoaren 15ean, Ikerketa Zuzendaritzak (aurrerantzean, IZ) informazio erreserbatua hasi zuen aurkeztutako salaketari buruz, Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeak (aurrerantzean, LDL) 49.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.



**3.** 2016ko uztailaren 5ean, LEA/AVCko Ikerketako zuzendariak RAFRINOR eta EKOGRAS enpresak ikuskatzeko agindu bat eman zuen, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.2 e) artikulua aplikatuz (aurrerantzean, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legea).

**4.** Ikuskapen horiek bi autoren bidez baimendu ziren: 57/2016 autoa, 2016ko uztailaren 7koa, Bilboko Administrazioarekiko Auzien 2. zenbakiko Epaitegiarena, eta 175/2016 autoa, 2016ko uztailaren 8koa, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1. zenbakiko Epaitegiarena.

**5.** 2016ko uztailaren 14an, ikuskapenak egin ziren RAFRINOR enpresaren egoitzan eta EKOGRAS enpresaren Gipuzkoako egoitzan. LEA/AVCko funtzionarioek egin zituzten, Ertzaintzaren lankidetzaren teknikoarekin eta Kataluniako Lehiaren Agintaritzako teknikarien laguntzarekin.

**6.** EKOGRAS enpresak, Donostiako egoitzaz gain, bulego bat zuenez Etxarri Aranatzen (Nafarroa), LEA/AVCk lankidetzaren eskaera bat bidali zion Nafarroako Gobernu Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuari.

Zerbitzu horretako zuzendariak ikuskatzeko agindua eman zuen, 2016ko uztailaren 13an.

Etxarri Aranazko egoitza 2016ko uztailaren 14an ikuskatu zuten Nafarroako Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuko funtzionarioek, LEA/AVCko teknikarien laguntzarekin. Enpresako arduradun batek eman zuen enpresako bulegoetara sartzeko baimena.

**7.** 2016ko abuztuaren 23an, Nafarroako Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak LEA/AVCkri igorri zion EAEko olio-bilketaren merkatuaren inguruko ikuskapenean bildutako dokumentazioa.

**8.** 2017ko maiatzaren 15ean, LEA/AVCko Ikerketa Zuzendaritzak ohar labur bat igorri zion Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalerako (aurrerantzean, MLBN) Lehiaren Zuzendaritzari, antzemandako jokabideak azaltzeko, otsailaren 21eko 1/2002 Legeak (Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren babesaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzkoa; aurrerantzean, 1/2002 Legea, Eskumenen koordinazioari buruzkoa) 2.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta LEA/AVCk jokabideak aztertze eskumena zuela adierazi zuen ohar hartan.

**9.** 2017ko urriaren 19an MLBNren ofizioa jaso zen, non, jasotako proposamenari jarraikiz, gertaera jakin horiek aztertze eta ebazteko eskumena LEA/AVCkri zegokiola jotzen zuen. Gainera, MLBNko Lehiaren Zuzendaritzak eskatu zuen, zehapen-espeditentea hastekotan, alderdi interesdun gisa onartzeko.



**10.** 2018ko maiatzaren 2an, LEA/AVCko IZk zehapen-prozedura ez hasteko proposamena helarazi zion LEKri, EAEko landare-olio erabilia biltzeko merkatuari dagokionez.

**11.** 2018ko maiatzaren 31n, LEK-k ez zuen onartu IZk aurkeztutako proposamena, eta espedientea itzuli zion, honako honetan oinarrituta: «LEKri aurkeztutako dokumentua ikusita, kontzeptu juridiko zehaztugabe gehiegi daude, eta ez da argi geratzen xedeagatiko arau-hausterik dagoen edo, egiaz, zehapen-prozedura hasteko moduko zantzu argirik ez dagoen. Horregatik, erabaki da dokumentua lkerketa Zuzendaritzari itzultzea, proposamena zentzu batean edo bestean zehaztu dezan» (1.417. folioa).

**12.** 2019ko otsailaren 25ean, LEA/AVCko lkerketako zuzendariak ebazpena eman zuen, RAFRINOR eta EKOGRAS enpresei zehapen-espedientea irekitzeko, ustez, LDLren 1. artikulua debekatzen dituen jokabideak izateagatik. Izan ere, salaketatik eta informazio erreserbatutik, bai eta egindako ikuskapenetatik ere, ondorioztatu zen LDLren 1. artikulua urratu izanaren arrazoizko zantzuak zeudela; hau da, EAEko landare-olio erabilia biltzeko merkatuaren banaketak izan zitezkeela, bai administrazioen lizitazioetakoa bai kontratu pribatuetakoa.

**13.** Halaber, honako hauek jo ziren zehapen-prozedurako interesduntzat:

- RAFRINOR
- EKOGRAS
- EKO GASTEIZ
- MLBN

**14.** 2019ko martxoaren 13an, espedientearen instrukzio-egileek probidentziak eman zituzten. Horien bidez, informazio hau emateko eskatu zieten RAFRINOR eta EKOGRAS enpresei: EAEko zer udalerrri eta mankomunitatetan eman dituzten landare-olio erabilia biltzeko zerbitzuak, bai beraiek bai beraiekin akzio-lotura duen edozein enpresak; EAEko zer udalerrri eta mankomunitatetan aurkeztu duten eskaintza ekonomikoa (edo aurrekontua, kontratu txikiak izanez gero), landare-olio erabilia biltzeko zerbitzuak ematera bideratuta, eta zeintzuetan ez dituzten hautatu haiek eta haiekin akzio-lotura duen edozein enpresaren eskaintzak edo aurrekontuak; eta EAEko zer ostalaritza-establezimendutan eman dituzten landare-olio erabilia biltzeko zerbitzuak, bai beraiek bai beraiekin akzio-lotura duten beste edozein enpresak.

**15.** 2019ko maiatzaren 15ean, espedientearen instruktoreek probidentziak eman zituzten. Horien bidez, informazio hau emateko eskatu zieten RAFRINOR eta EKOGRAS enpresei: EAEko landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkaturan dituzten lehiakide nagusiak; haien eta lehiakideen merkatu-kuotak; 2001etik 2018ra



bitarteko urteko negozio-bolumena, landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatuari dagokionez soilik, administrazio publikoari edo ostalaritza-establezimenduei egindako fakturazioa banakatuta.

**16.** 2019ko ekainaren 26an, instruktoreek egitateak zehazteko orria (EZO) eman zuten, eta behar bezala jakinarazi zitzaien interesdunei; hamabost egun balioduneko epea eman zitzaien orria erantzuteko eta, hala balegokio, frogak proposatzeko.

Interesdunek 2019ko uztailaren 23an eta abuztuaren 2an aurkeztu zituzten alegazioak, hurrenez hurren.

**17.** 2019ko irailaren 25ean, instrukzioaren fasea ixteko probidentzia eman zuten espedientearen instruktoreek, ebazpen-proposamena idazte aldera, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren 33. artikuluan ezarritakoaren arabera. Errege-dekretu horrek Lehia Defendatzeko Erregelamendua onartu zuen (aurrerantzean, LDE).

Probidentzia hori behar bezala jakinarazi zitzaien interesdun guztiei.

**18.** 2019ko urriaren 16an, espedientearen instruktoreek ebazpen-proposamena eman zuten. RAFRINOR eta EKOGRAS zehatzea proposatu zioten LEKri, landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatua elkarren artean erdibanatzeko akordio bat egiteagatik, EAEko toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) 2002tik 2013ko irailaren 27ra arte esleitutako kontratuen bidez (2749-2790 bitarteko folioak).

Ebazpen-proposamen hori interesdunei jakinarazi zitzaien, eta 15 eguneko epea eman zitzaien, alegazioak aurkezteko, bai eta froga eta jarduketa osagarriak proposatzeko, LDLren 50.4 artikuluan xedatutakoa betez.

Interesdunek 2019ko azaroaren 21ean eta 22an aurkeztu zituzten alegazioak, hurrenez hurren (2.835-3.013 bitarteko folioak).

**19.** 2019ko abenduaren 5ean, IZk zehapen-espediente administratiboa igorri zion LEKri, ebazpen-proposamenarekin eta alderdiek aurkeztutako alegazioak aztertzen zituen txostenarekin batera.

**20.** 2020ko urtarrilaren 15ean, LEK-k enpresen negozio-bolumen osoa eskatzeko beharra ikusi zuen –2019ko ekitaldiari dagokionez–, eta EKOGRAS enpresari eskatu zion administrazio publikoen edukiontzien eta ostalaritzaren, jatetxeen eta catering bidez (HORECA) bidez bildutako olio kantitatea xehatzeko, eragindako merkatuaren negozio-bolumena zehaztasunez kalkulatzeko. Hori dela eta, IZri eskatu zion jarduketa osagarri hori egiteko (3.183-3.185 bitarteko folioak).



- 21.** 2020ko otsailaren 25ean, IZk LEKri igorri zizkion EKOGRAS eta RAFRINOR enpresek jarduketa osagarri horretan bidalitako erantzunak (3.207-3.217 bitarteko folioak).
- 22.** 2020ko martxoaren 6an, RAFRINOR enpresak Gueñesko Udalaren 2020ko lizitazio publiko bati buruzko dokumentazioa aurkeztu zuen, eta espedientean agiri osagarri gisa sartzeko eskatu zuen (3.219-3.231 bitarteko folioak).
- 23.** Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratu zen, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko, eta, alarma-egoera indarrean zegoen bitartean, prozesu- eta administrazio-epeak eten ziren, bai eta edozein ekintza eta eskubideren preskripzio- eta iraungitze-epeak ere, eta, hala balegokio, baita luzapenak ere. Administrazio-epeak 2020ko ekainaren 1ean hasi ziren berriz zenbatzen, maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren arabera.
- 24.** LEK-k hainbat erabaki hartu zituen 2020ko martxoaren 30ean; besteak beste, LDLren 51.3 artikuluan xedatutakoa betez egin behar zen ikustaldia onestea eta ikustaldiaren eguna atzeratzea, COVID-19aren osasun-krisiaren ondorioz dekretatu zen epeen etenaldia amaitutzat ematen zen egunera arte. Behar bezala eman zitzairen horren berri espedienteko alderdiei eta interesdunei (3.239-3.272 bitarteko folioak).
- 25.** LEK-k ikustaldiaren eguna adostu zuen 2020ko maiatzaren 27ko bilkuran: 2020ko uztailaren 2an egingo zen, 11:00etan, LEA/AVC egoitzan (3.281. folioa). Erabaki hori ere behar bezala jakinarazi zitzairen alderdiei eta espedienteko interesdunei.
- 26.** 2020ko ekainaren 3an, RAFRINOR enpresak espedientean sartzeko baimena eskatu zuen, eta LEA/AVCk onartu; enpresa 2020ko ekainaren 10ean sartu zen espedientera (3.273., 3.279. eta 3.293 folioak).
- 27.** 2020ko ekainaren 15ean, EKOGRAS enpresak espedientean sartzeko baimena eskatu zion LEA/AVCri, eta 2020ko ekainaren 19an eman zion sarbidea (3.295-3.302 bitarteko folioak).
- 28.** 2020ko uztailaren 2an, LEA/AVCn EKOGRAS enpresaren idazki bat sartu zen. Idazki horren bidez eskatzen zuen enpresak berak 2020ko urtarrilean eman zuen eragindako merkatuaren negozio-bolumenaren zifra (EMNB) aldatzeko; hau da, 3.177. folioan agertzen den 8.077.534,61 euroko zifraren ordez, 2.156.688 euroko zenbatekoa jartzeko (3.371 folioa).



**29.** LDLren 51.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2020ko uztailaren 2an, espedientearen ahozko ikustaldia egin zen LEA/AVCren egoitzan, LDEn 37.2 eta 19. artikuluen arabera. Ikustaldian honako hauek parte hartu zuten, hitz-txandak errespetatuta: RAFRINOR eta EKOGRAS enpresetako legezko ordezkariak, euren abokatuen laguntzaz, EKO GASTEIZ enpresako legezko ordezkaria eta espedientearen instruktorea. Ikustaldia grabatu egin zen, eta ikus-entzunezko euskarria espedientearen sartu (3.376.bis folioa), eta alderdi guztiei eman zitzaizkien.

**30.** Ahozko ikustaldian, eta alderdiek azaldutako argudioen ildotik, LEK-k RAFRINOR eta EKOGRAS enpresei eskatu zien dokumentazio osagarria aurkezteko, alderdiek beren azalpenetan behin eta berriz aipatu zuten bat egiteko saiakerari buruzkoa.

**31.** 2020ko uztailaren 20an, EKOGRASen idazkia sartu zen LEA/AVCren erregistroan –2020ko uztailaren 16an posta-bulego batean aurkeztu ondoren–, agiri hauekin batera (3.413-3.559 bitarteko folioak):

- ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL eratzeari buruzko eskritura, 2002ko maiatzaren 3koa.
- MGMk EKOGRAS ARANTXari bidali zion mezu elektronikoa, 2004ko uztailaren 14koa.
- EKOGRAS eta RAFRINOR sozietateen integrazio-prozesuan aholkularitza-, zuzendaritza- eta koordinazio-zerbitzu profesionalak emateko proposamena, 2010eko martxoaren 5koa. ELKARGI aholkularitza.
- Alter Consulting enpresaren jardun profesionalerako proposamena, 2010eko apirilekoa.
- ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL eta RAFRINOR SL enpresak baloratzeko zerbitzu profesionalen proposamena, 2010eko abenduaren 10koa. ELKARGI aholkularitza.
- BBBk EKOGRASeko kudeatzaileari bidalitako mezu elektronikoa, 2011ko otsailaren 15koa.
- BBBk EKOGRASeko administratzaileari bidalitako mezu elektronikoa, 2011ko otsailaren 17koa.
- ELKARGIk 2011ko martxoaren 1ean egindako faktura.
- Eskuz idatzitako dokumentua.
- ELKARGIk 2011ko ekainaren 13an egindako faktura.
- EKOGRAS eta RAFRINOR enpresen negozio-egituraren berrikuspena, 2012ko otsailaren 13koa. ELKARGI aholkularitza.



- BBBk EKOGRASeko CCCi bidalitako mezu elektronikoa, 2013ko ekainaren 25ekoa.
- SAYMA aholkularitzaren dokumentua, 2020ko uztailaren 14koa.

**32.** 2020ko uztailaren 22an, RAFRINOR enpresak aurkeztutako idazkia sartu zen LEA/AVCren erregistroan, agiri hauekin batera (3.389-3.412 bitarteko folioak):

- Garrigues enpresaren gutuna, 2020ko uztailaren 22koa
- Erandioko Udalaren dokumentua, 2020ko uztailaren 9koa.
- Gueñesko Udalaren dokumentua, 2020ko uztailaren 8koa.
- RAFRINOR enpresak Durangoko Udalari 2020ko uztailaren 8an aurkeztutako idazkia.
- RAFRINOR enpresak Barakaldoko Udalari 2020ko uztailaren 8an aurkeztutako idazkia.

## II. ENPRESEN DESKRIBAPENA

**33. ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL** enpresak (IFK: B20621264; izen komertziala: EKOGRAS) Donostiako Ubarburu pasealekuko 20-F zenbakian du egoitza soziala (PK: 20014). Halaber, bulego bat du Nafarroan, Etxarri-Aranazko Zumurdiñeta industrialdeko 35. zenbakian. 1998ko martxoaren 10ean eratu zen, eta bere sozietate-helburua hondakinak bildu, garraiatu, berreskuratu eta birziklatzea da. Administratzaile bakarra DDD jauna da.

EKOGRAS enpresa talde baten burua da, eta enpresa hauek osatzen dute:

- KERABI GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL SL (IFK: B31922321), egoitza soziala Nafarroan duena.
- KERABISUR SL (IFK: B04783072), egoitza soziala Almerian duena.
- KERABI FRANCE (SIREN zk.: 798657177), egoitza soziala Frantzia duena.
- ARAGONESA DE GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL SL (AGMA) (IFK: B50774082), egoitza soziala Zaragozan duena.
- EKOGRAS GASTEIZ SL (IFK: B01515469), egoitza soziala Araban duena.
- OLIO3R (IFK: B75001156), egoitza soziala Gipuzkoan duena.

**34. OLIO3R SL** (IFK: B75001156; izen komertziala: EKO3R) enpresak Donostiako Ubarburu pasealekuko 20-F zenbakian du egoitza soziala (PK: 20014). 2014ko otsailaren 4an eratu zen, eta bere sozietate-helburua da birziklatzeko edukiontzia fabrikatzea eta instalatzea, materialak eta hondakinak birziklatzea eta horiekin lotutako edozein jardura edo zerbitzu ematea. EKOGRASek % 100eko partaidetza du.





Enpresa horren aurrekaria EKO3R kooperatiba-sozietatea da (IFK: F75001156), 2009an Mondragon Taldearen barruan sortutako enpresa. Lau urtez Fagor Electrodomésticos kooperatibako kide izan ondoren, EKOGRASek EKO3R Koop. S. erosi zuen, eta OLIO3R SL<sup>1</sup> bihurtu zen, baina oraindik EKO3R erabiltzen du marka komertzial gisa.

**35. RAFRINOR SL** enpresak (IFK: B95187027; izen komertziala: RAFRINOR) Granada auzoko Bilbao hiribidean du egoitza (Ortuella 48530, Bizkaia). 2001eko azaroaren 30ean eratu zen, eta bere helburu soziala landare-olio erabilia biltzea da, birziklatzeko eta berriz saltzeko. Administrazioaile mankomunatuak EEE jauna eta FFF jauna dira.

RAFRINOR enpresa talde baten burua da, eta enpresa hauek osatzen dute:

- GESTORA ASTURIANA DE RESIDUOS SL (IFK: B33946963), egoitza soziala Asturiasen duena.
- RECYOIL ENERGY SL (IFK: B01437862), egoitza soziala Araban duena.

**36. RECYOIL ENERGY SL** (IFK: B01437862; izen komertziala: RECYOIL) enpresak Gasteizko Kapelamendi kaleko 18.eko 2. solairuan du egoitza soziala (PK: 01013). 2008ko urtarrilaren 14an eratu zen, eta bere sozietate-helburua da elikagaien deribatuak birziklatzea eta aurrekoaren osagarri diren era guztietako jarduerak egitea, erostea, urbanizatzea, partzelatzea, sustatzea, eraikitzea, jabetza horizontalean eratezea, eraberritzea, zabaltzea, ustiatzea, errentan ematea, besterentzea eta, oro har, horrekin lotutako jarduera oro gauzatzea. 2011n RAFRINOR enpresak erosi zuen, eta administrazioaile bakarra FFF jauna da.

**37. EKO GASTEIZ SL** (IFK: B01509538; izen komertziala: EKO GASTEIZ) enpresak Gasteizko Errekaxiki kaleko 25.eko 2.a C letran du egoitza soziala (PK: 01003). 2013ko martxoaren 6an eratu zen, eta bere sozietate-helburua honako hau da: hondakinak gaika biltzea eta berreskuratzea; sukaldeko landare-olioak eta bestelakoak biltzea birziklatzeko; olioak biltzeko edukiontziak jartzea, saltzea, lagatzea eta alokatzea, eta garbiketa-produktuak eta olio berriak erostea eta saltzea, bai handizka bai txikizka. Administrazioaile bakarra AAA jauna da.

---

<sup>1</sup> IRAGARKIA, «EKO3R Koop. S.» erantzukizun mugatuko sozietate bihurtzeari buruzkoa (2014ko urtarrilaren 31ko EHAA, 21. zk.).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/01/1400460e.shtml>



### III. MERKATUAREN AZTERKETA

#### 1. Aplikatu beharreko araudia

**38.** Landare-olio erabiliaren bilketa eta kudeaketa hondakinei buruzko eta zenbait zuzentarau indargabetzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/EE Zuzentaruaren araututa dago<sup>2</sup>. Zuzentaruaren 21. artikulua olio erabiliaren birziklatzea arautzen du.

**39.** Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko Legeak<sup>3</sup> (uztailaren 28ko 22/2011 Legea) aipatutako 2008/98/EE Zuzentaruaren txertatzen du Espainiako Zuzenbidean. Ondorio horietarako, 12.4.b) artikulua ezartzen du autonomia-erkidegoei dagokiela hondakinak sortzeko eta kudeatzeko jarduerak baimentzea, zaintzea, ikuskatzea eta zehatzea.

**40.** EAEn, hau da araudi aplikagarria: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko<sup>4</sup>; 212/2012 Dekretua, urriaren 16koa, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duena<sup>5</sup>, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana (2020)<sup>6</sup>, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko otsailaren 25eko Aginduaren bidez onartua.

#### 2. Merkatu adierazgarria

**41.** Lehiaren arloko arau-haustek gertatu diren merkatu adierazgarrian egiaztatzen dira. Merkatu hori, hain zuzen ere, Europako Batzordeak lehiaren esparruan Europar Batasuneko araudia ezartzeko erreferentziako merkatua definitzeko buruz egin zuen komunikazioaren arabera definitzen da (1997ko abenduaren 9ko komunikazioa, DOCE 97/C 372/03)<sup>7</sup>, produktu-merkatuak eta merkatu geografikoak osatzen dutena.

<sup>2</sup> <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32008L0098&from=ES>

<sup>3</sup> <https://www.boe.es/eli/es/l/2011/07/28/22/con>

<sup>4</sup> <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/1998/02/27/3/con>

<sup>5</sup> <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2012/11/1205126e.shtml>

<sup>6</sup> [http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/noticia/xleg\\_plan\\_departamento/es\\_p\\_depart/adjuntos/Plan%20Residuos%202020.pdf](http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/noticia/xleg_plan_departamento/es_p_depart/adjuntos/Plan%20Residuos%202020.pdf)

<sup>7</sup> [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:31997Y1209\(01\)&from=ES](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:31997Y1209(01)&from=ES)



## A. Produktu-merkatua

- 42.** Erreferentziako produktu-merkatuari dagokionez, 7. apartatuan honela definitzen da: «Kontsumitzaileek trukagarritzat edo ordezkagarritzat dituzten produktu eta zerbitzu guztiak, beren ezaugarriak, prezioa eta zertarako erabiliko diren kontuan izanik».
- 43.** Produktuari dagokionez, kontuan izan behar da jokabideak gauzatzen diren merkatua landare-olio erabilia biltzekoa eta kudeatzekoa dela; barne hartzen ditu bai horretarako prestatutako edukiontzietako olio biltzea bai hondakina tratatzen den biltegiatze-zentrora eramatea.
- 44.** Partikularrek, toki-administrazioek, udalek edo mankomunitateek horretarako prestatutako edukiontzietan uzten dute etxeetako landare-olio erabilia, plastikozko ontzietan sartuta. Bestalde, ostalaritza-establezimenduetako, jatetxeetako eta cateringetako (HORECA) olio erabilia horretarako kontratatutako enpresek jasotzen dute bertan.
- 45.** Hondakina biltzeaz eta kudeatzeaz arduratzen den enpresa aldian-aldian joaten da kaleko edukiontziak husteratzen edo HORECA establezimenduetako olio erabilia jasotzera, eta biltegiatze-zentrora eramaten du, bertan tratatzeko edo bertatik tratamendu-zentroetara bidaltzeko.
- 46.** Landare-olio erabiliaren tratamenduan, olio dekantatu, eta iragazi egiten da, hondakin solidoak eta partikulak kentzeko eta, horrela, olio horren birsortze-prozesuarekin jarraitu ahal izateko.
- 47.** Behin olio iragazi eta dekantatu denean eta, beraz, hondakin solidorik ez duenean, balorizazio-zentroetara eramaten da, eta, bertan, beste erabilera bat ematen zaio. Oro har, olio erabilia biodiesela eta xaboiak ekoizteko erabiltzen da, eta industria kimikoak argizariak eta bernizak egiteko ere erabiltzen du.
- 48.** Eskariaren ikuspegitik, hiru merkatu desberdin daude:
- (i) **landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatua, udalek eta mankomunitateek esleitutako kontratuen bidez.** Kasu honetan, administrazioak urteko prezioa ordaintzen dio enpresa esleipendunari, olio biltzeagatik eta kudeatzeagatik (kasuaren arabera, administrazioak berak edo enpresak jartzen ditu edukiontziak). Gainera, enpresak diru-sarrerak lortzen ditu olio saltzeagatik.



Udal batzuetan, hondakinak biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuaren enpresa esleipenduna da (FCC, CESP... ) landare-olio erabilia biltzen duen enpresa azpikontratatzeko duena.

- (i) **tokiko HORECA establezimenduetako landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatua.** Merkatua oso atomizatua dago, eta operadoreak oso heterogeneoak dira. Horrela, HORECA batzuek olio jasotzeko zerbitzua ordaintzen dute, eta beste batzuek enpresen hornitzaile gisa jarduten dute, haiek ordaintzen baitute zerbitzua. Landare-olioa biltzen duten enpresen eta HORECA establezimenduen arteko harreman komertzialak ez dira batere egonkorak; izan ere, behin eta berriz hasten eta amaitzen dira, denbora-tarte laburretan.

Gainera, merkatu honetan, enpresek ke-erazgailuko iragazkiak garbitzeko zerbitzuak ere eskaintzen dituzte; batzuetan, olio biltzen duen enpresa berarekin kontratatzen dituzte, eta, beste batzuetan, ez.

- (iii) **ostalaritza-kateen merkatua:** HORECA enpresak dira; sukalde mordera daude estatu mailan, eta, oro har, solaskide bat bakarrik bilatzen dute, sortzen duten olio-hondakina kudeatzeko. Oro har, kudeatzaile batek (toki mailakoa) kontratu bat lortzen duenean kate batekin (estatu mailakoa), akordioak bilatzen ditu hondakina kudeatzen duten beste enpresa batzuekin, zerbitzua eman ahal izateko toki mailakoa izateagatik eman ezin duen tokietan.

**49.** Espediente honetan aztertutako jokabideak lehen merkatu motan sartzen dira; landare-olio erabilia toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) esleitutako kontratuen bidez biltzen eta kudeatzen den merkaturan, alegia.

## **B. Merkatu geografikoa**

**50.** Zera dio Europako Batzordearen komunikazioaren 8. apartatuak, erreferentziako merkatuari dagokionez: «Erreferentziako merkatu geografikoak barne hartzen du eraginpeko enpresek produktuak hornitzeko eta erreferentziako zerbitzuak ematen dituzten eremua; bertan, lehia-baldintzak nahiko homogeneoak dira, eta hurbileko beste eremu geografiko batzuetatik bereiz daitezke, bereziki, bertan nagusi diren lehia-baldintzak, besteetan dauden baldintzen aldean, apur bat desberdinak direlako».

**51.** Landare-olio erabiliaren hondakinen kudeatzaileak tokikoak dira, eta bere eremu operatiboak ez du Autonomia Erkidegoaren eta probintzia mugakideen eremua gainditzen; izan ere, negozioa errentagarria izan dadin, ezinbestekoa da azpiegitura bilketa-guneetatik gertu izatea.



**52.** Hala berresten du Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020ko Planak (Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko otsailaren 25eko Aginduaren bidez onartua). Bertan adierazten denez, batez ere garraioari lotutako ingurumen-arriskuak eta -inpaktuak murrizte aldera, hondakinak hurbilen dauden instalazio egokietan tratatu beharko dira; beraz, horretarako, azpiegitura-sare nahikoa ezarri beharko da. Sare horrek antzeko arreta-baldintzak bermatu beharko ditu edozein ekoizlerentzat, bere kokapen geografikoa kontuan izan gabe, eta edozer hondakinerako.

EAEEn, Eusko Jaurlaritzak ematen ditu hondakinak kudeatzeko baimenak.

### **C. Ondorioa**

**53.** Laburbilduz, espediente honen merkatu adierazgarria da landare-olio erabilia EAEko toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) esleitutako kontratuen bidez bildu eta kudeatzearena.

#### **3. Merkatua ezaugarritzea**

**54.** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren definizioaren arabera, hiri- edo udal-hondakinak etxe partikularretan, saltokietan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutako hondakinak dira, bai eta arriskutsutzat jotzen ez direnak eta haien izaera edo osaera dela eta aurreko leku edo jardueretan sortutakoen parekoak izan daitezkeenak ere. Hauek ere hartzen dira hiri-hondakintzat:

- Bide publikoak, berdeguneak, aisialdiko guneak eta hondartzak garbitzearen ondorioz sortzen diren hondakinak.
- Etxeko animalia hilak, bai eta baztertutako altzariak, tresnak eta ibilgailuak ere.
- Etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txikien ondorioz sortutako hondakinak eta zaborrak.

**55.** Sail horrek EAEko hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko hainbat plan jarri ditu abian; azkena 2014-2020 aldikoa da. Bertan adierazten denez, hondakinak biltzeko sistemen arloan, edukiontzia da aukera zabalduena, eta, gaur egun, gaikako bilketarako eta bereizketarako unitate espezifikoak daude: frakzio organikoa, beira, ontziak, paper-kartoia, **landare-olioa**, pilak eta frakzio berrerabilgarria (arropa, zapatak eta bestelako osagarriak, etxetresna txikiak, liburuak, jostailuak, etxeko gauzak eta bazarreko bestelako objektuak).



**56.** EAEn bildutako landare-olio erabiliari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak argitaratutako Hiri-hondakinen estatistikan<sup>8</sup> adierazten da, 2016an, 1.269 tona etxeko olio bildu zirela (etxeko eta saltokietako hondakinak); horrek esan nahi du % 16 hazi zela estatistika hasi zen urtetik (2005etik), 1.065 tona bildu baitziren urte horretan.

### **A. Merkatuaren deskribapena, eskariaren ikuspegitik**

**57.** Landare-olio erabilia EAeko toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) esleitutako kontratuen bidez biltzen eta kudeatzen den merkatuan, enpresa esleipendunek olioaren uzteko prestatutako edukiontzietatik jasotzen dute hondakina, eta biltegitratze-zentrora eramaten dute, tratatzeko eta balorizatzeko. Zerbitzu horren eskatzaileak hiru lurralde historikoetako udalak eta mankomunitateak dira.

**58.** Espedientea ireki zaien enpresek eman duten informazioaren arabera, EAeko 251 udalerrietatik, 212 udalerritan biltzen da olioaren. Udalek, hasieran, zerbitzua zuzenean kontratatzen zuten arren –askotan kontratu txikien bidez–, pixkanaka, mankomunitateek beren gain hartu dute zerbitzu hori, eta lizitazio irekien bidez kontratatzen dute.

### **B. Merkatuaren deskribapena, eskaintzaren ikuspegitik**

**59.** Landare-olio erabilia biltzen eta kudeatzen duten enpresen kopurua txikia da; tokiko enpresak dira, eta olio-hondakin erabiliararen ekoizleen zorro murriz baten mende daude. Olioaren kudeatzeko azpiegitura bilketa-guneetatik hurbil eduki behar izatea oztopo ekonomikoa izan daiteke enpresen negozioaren hedapenerako. Hori dela eta, sektorearen barruan hazteko, ohikoa da olio-hornitzaileen zorroa duten enpresak xurgatzea. Hori izan da, hain zuzen, espedientearen xede diren enpresen kasua. Adibidez, EKOGRASEK OLIO3R erosi zuen 2014an, eta RAFRINOREK RECYOIL, 2011n.

**60.** Eskaintzaren ikuspegitik, 2019ko maiatzaren 14an, honako hauek ziren landare-olioaren sektoreko hondakin ez-arriskutsuak tratatzeko baimena zuten EAeko kudeatzaileak<sup>9</sup>:

---

<sup>8</sup>[https://www.euskadi.eus/web01a2inghon/es/contenidos/estadistica/amb\\_res\\_urb\\_2016/es\\_def/index.shtml](https://www.euskadi.eus/web01a2inghon/es/contenidos/estadistica/amb_res_urb_2016/es_def/index.shtml)

<sup>9</sup> Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratutako informazioaren arabera:

**Araba:**

EKO GASTEIZ SL (IFK: B01509538)

RECYOIL ENERGY SL (IFK: B01437862)

**Bizkaia:**

FERNANDO GONZÁLEZ MÚGICA (URDAIBAI) (IFK: 30663092K)

RAFRINOR SL (IFK: B95187027)

**Gipuzkoa:**

ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL (IFK: B20621264)

EKOLIO BIOHONDAKINEN KUDEAKETA SL (IFK: B75097964)

**61.** EAEn, udal eta mankomunitateetako olio erabilia biltzeko zerbitzua emateko lizitaziora aurkeztu dira, besteak beste, jarraian zerrendatzen diren enpresak. Batzuek autonomia-erkidego mugakideetan dute egoitza, hori egiteko baimena baitute. Beste batzuk, enpresa taldeak dira –hala nola FCC eta CESP–, eta, hondakin mota guztietarako dituzten baimenen artean, olio erabiliak bil ditzakete. Azken horiek, zenbait kontraturen lizitaziora aurkeztu badira ere, kasu gehienetan, administrazioak kudeaketa-pakete handiagoen barruan sartzen badute ematen dute landare-olio erabilia biltzeko zerbitzua. Adibidez, Getxoko Udalean, CESPak ematen du zerbitzua, eta, aldi berean, landare-olio erabiliaren bilketa azpikontratatu du; FCCk gauza bera egiten du Bilboko Udalean.

- CESP SA
- CONTENEDORES ESCOR SL
- ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL
- EKO3R KOOP.
- EKO GASTEIZ SL
- ENVISER SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES SAU
- FCC SA
- GESTTA MEDIO AMBIENTAL SL (Gaztela eta Leon)
- GSM MEDIO AMBIENTE SA
- IGS RENT SL
- IRAGAZ SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES SL
- RAFRINOR SL
- RECOGIDA DE ACEITE HERSA SL (Kantabria)
- RECYOIL ENERGY SL
- URBASER SA
- UTE ASASER SA + ALTUNA Y URIA SA
- UTE EKOGRAS SL + KERABI SL
- UTE INDUSTRIAL SUESKUN SA + BIO OIL SA
- UTE RSU BILBAO II (FCC SA, VALORIZACIÓN Y TRATAMIENTO DE RESIDUOS SA eta GSM MEDIO AMBIENTE SA)

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/registro\\_residuos/eu\\_def/adjuntos/gestores\\_rnp\\_eu.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/registro_residuos/eu_def/adjuntos/gestores_rnp_eu.pdf)



- USYMA-INBISA ABEE
- VALORIZACIÓN Y TRATAMIENTO DE RESIDUOS SA

**62.** Hurrengo taulan, landare-olio erabilia biltzen eta kudeatzen duten enpresen merkatu-kuotak jaso dira, 2019. urtean zerbitzu hori EAEko zer udalerritan eman zuten kontuan hartuta. Olio-bilketa EAEko 212 udalerritan egiten da, eta honela daude banatuta:

ENPRESA	MERKATU-KUOTAK
EKOGRAS TALDEA	% 50,9
RAFRINOR TALDEA	% 36,3
ENVISER	% 4,2
EKO GASTEIZ	% 3,8
FERROVIAL	% 2,8
BESTE BATZUK	% 1,9
GUZTIRA	% 100,0

**63.** Merkatu oso kontzentratua da, eta lehen bi operadoreek –EKOGRAS eta RAFRINOR– % 87ko kuota dute, baina zifra horri ñabardura bat egin behar zaio, udalerrri askotan, olio biltzeko kontratuaren esleipena ez duelako udalak egiten zuzenean, dagokion mankomunitateak baizik. Gainera, kontuan hartu behar da kontratuak munta desberdinetakoak direla, udalerrien tamainaren arabera.

## IV. FROGATUTAKO EGITATEAK

### 1. Errespetuzko akordioak

**64.** EKOGRAS enpresaren ikuskapenean –Etxarri Aranatzan, 2016ko uztailaren 14an–, makinaz idatzitako dokumentu bat aurkitu zen, datarik gabe (2002. urtea aipatzen zuten ohar batzuk zeuden, eskuz idatzita). Dokumentuak EKOGRAS-RAFRINOR izenburua zuen, eta zera zioen DDDk bertan (807-813 bitarteko folioak):

Gure asmoa da Rafrinorrekin harreman ona izatea. Ondoren azalduko ditugun arrazoiak direla eta, erabaki dugu harreman komertzial oro etetea, gure errespetuzko akordioei kalterik egin gabe.

EKOGRASek bi aldean onurarako egin dituen lanei dagokienez:

EKOGRASek olio-bilketa egin du ARABAn, errentagarria ez zenean ere, eta, orain, bilketa horren % 50a eman nahi du (bere garaian hitzartu zen bezala), baina RAFRINOREk ordaindu beharko ditu egindako merkataritza-lana eta kalte ekonomikoak (RAFRINOREk hilean 4.000 kg jasotzen zituen, eta orain 15.000 kg jasoko lituzke; olioaren prezioa oso garestia izan da orain arte).

EkoGRASEk Gipuzkoako udalerrriak berreskuratuko lituzke.

Kexak:





1. Atzeraeraginezko erreklamazioa, Arabako bilketaren gainean ustez lortutako onurari buruzkoa; nolana ere, RAFRINOREk hartu beharko luke bere gain bilketa horrek EKOGRASI eragin dizkion galeren zati bat.
2. EKOGRASEk egindako lana gutxietsi da, FFFk, DDDk eta GGGk batera baino dedikazio-ordu gutxiagotan lan bera egiten duela pentsatzeagatik.
3. EKOGRASEk RAFRINOREkin egindako bileren gastu guztiak hartzen ditu bere gain (Ortuellan dira beti; adibidez; 50 bidaia x 60 € = 3.000 €).
4. Etengabe entzun behar dugu RAFRINOREk EKOGRASI lagundu diola, baina, besterik gabe, jaso berri dugun furgoneta baten *leasing* kuota batzuk aurreratu ditugu, eta, aldiz, hau egin da:
5. Olio azken bezeroari saltzen zaion prezioan baino merkeago erosi digute.
6. Ez dira behar bezala baloratu gure aktiboak, bat-egite ahalegin huts eginean (udalak, mankomunitateak).
7. EKOGRASen eta GARMESAren arteko bat-egitea atzeratu nahi izan zen, BIONOR errealitate bihurtu, eta abian egon arte (2002. urtearen erdialdean).
8. EKOGRASEk bat-egiteari uko egin izanak arrazoirik gabe haserretu du GARMESA, eta horrek bien arteko harremanak okertu ditu. Alde batetik, bloke bat osatu nahi da BIONORen, % 50 kontrolatuko duena, eta, bestetik, ez da EKOGRAS kontuan hartzen inolako erabakirik hartzeko orduan (GEN erostea, INSSECEk negoziazioen norabidea aldatzea, etab.).
9. NATURDIESEL arazo larria izan da BIONORrentzat, olio biltzeko orduan. Ezinezona eta mesfidantza sortu da gure biltzaileen artean. EKOGRASEk ez du lan hori partekatu nahi BIONORi arazoak ekarri dizkion enpresarekin.
10. EKOGRASEk NATURDIESELen ondorioak jasan ditu (ARAMAR zisterna).

BIONOR ere kalte horiek pairatzen ari da (biltzaileen mesfidantza, HHHK egindako lehia-lana, Burgosko bilketa –III–).

ARABA: EKOGRASEk egingo du olio-bilketa. Bildutako olio kantitatearen erdia RAFRINORI salduko dio, kostaprezioan (hitzartu beharrekoa).

Udalekin eta mankomunitateekin hitzartutako bilketetatik datozen diru-sarrerak, bai eta hondakina sortzen dutenei bilketa-zerbitzua kobratzetik datozenak ere, EKOGRASen eta RAFRINORen artean banatuko dira, % 50ean, eta, aldez aurretik, zerbitzuaren kostuak deskontatuko dira (hitzartu beharrekoa).

EKOGRASEk konpromisoa hartzen du RAFRINORi hilero informazioa emateko, bai bildutako kantitateari buruz bai bilketa-zerbitzua ematen zaien erakundeei eta zerbitzu hori kobratzen zaien establezimenduei buruz.

RAFRINORREK EKOGRASEKIN DUEN ZORRA:

RAFRINORRENTZAT EGINDAKO KUDEAKETAK

(Araba, udalak, Suances)

EKOGRASEK BIONORRENTZAT EGIN DITUEN KUDEAKETAK

RAFRINORRI SALDUTAKO OLIOAREN ALDE KOMERTZIALA.

(Salmenta-fakturak – % 50 EKOGRAS, % 50 RAFRINOR)



**65.** DDD jaunak FFF jaunari 2013ko urtarrilaren 17an bidalitako mezu elektronikoko batean –RAFRINORi egindako ikuskapenean paperean jaso zen– honako hau esaten da RAFRINORek RECYOIL enpresa erosi izanari dagokionez (789-791 bitarteko folioak):

Egun on, FFF eta JJJ:

Posta elektronikoz bidali genizuen (2011ko martxoan) zirriborroa duen artxibo bat bidaltzen dizuet, argi uzten duena Recyoil sozietatea mantentzea edo ez mantentzea gure arteko bat-egitearen arabera izango dela.

Akordio hori, bai eta «eremuena» ere, hasieratik izan dugu, eta erabaki zenuen ezin zenuela sinatu.

FFF, joan den asteartean ukatu egin zenuen horren inguruan erosketa egin baino lehen hitz egin genuenik, eta esan zenuen erosketaren ostean hitz egin genuela. Bidaltzen dizuegun mezu honek, aldiz, argi uzten du aukera hori mahai gainean egon dela hasieratik.

Hitz egingo dugu.

Ondo izan

**66.** FFF jaunak DDD jaunari 2013ko urtarrilaren 18an bidalitako erantzunean –RAFRINORi egindako ikuskapenean paperean jaso zen– honako hau esaten da (789. folioa):

Kaixo, DDD:

2013ko urtarrilaren 17an bidali zenigun mezua jaso eta irakurri ondoren, honako hau adierazten dizut:

Ez dut inoiz ukatu akordio-dokumentuaren zirriborroa bidali zenigunik (2011/03/29). Zirriborro honen edukari dagokionez, hurrengo egunean esan nizun ez nengoela ados. Egia da zirriborro hau erosketa notarioaren aurrean sinatu aurrekoa dela, baina...

1.- Eragiketa hau 2010eko ekainaren 24an hasi zen; hau da, zure zirriborroa jaso baino 9 hilabete lehenago. Erosteke interesa lehia geldiarazteko zen, pantaila gisa erabili, eta kontrolatutako enpresa batekin merkatuan espazio bat hartu ahal izateko. Ez dugu inoiz hitz egin erosteaz eta desegiteaz, baina bai kantitatea gure eremuen arabera banatzeaz.

2.- 9 hilabete horietan (2010-06-24tik 2011-03-29ra), beste aldearekin izandako elkarrizketa telefoniko eta bilera guztien berri eman nizun, eta ez zenidan inoiz proposatu sozietatea desegitea.

3.- Erosketa-eragiketan lanean aritu nintzen (2010-06-24tik 2011-03-29ra), eta uste osoa nuen akordio bat genuela eta ez zela aurreikusten sozietatea desegitea. Hori da, eta ez besterik, 2013ko urtarrilaren 15eko bileran adierazi nuen.

4.- Beharrezkoa bada, eragiketa hau eta gure akordioa 2011ko martxoaren 29ko dokumentuaren zirriborroa baino askoz lehenago hasi zela frogatzeko (zuri bakarrik) nahikoa dokumentazio daukat.

Beraz, oraindik ere esaten dut sozietatea desegiteko proposamena –bat egin ezean– gure hasierako akordioaren ondorengoa dela.



Eragiketa honekin ez dut nahi gure enpresetako bat bera ere kaltetuta ateratzea, eta ziur nago zuk ere ez duzula nahi.

Zure esanetara nago behar dituzun argibide guztietarako. Argibideen ondoren oraindik pentsatzen baduzu gure hasierako akordioak (erosketa-eragiketari buruzkoak) barne hartzen zuela sozietatea desegitea, zure jarrera azaltzeko eskatzea besterik ez zait geratzen.

Gogorarazten dizut eragiketak aurrera egin dezan utzi duzula erosketa notarioaren aurrean sinatu arte, jakinda sozietatea desegitearen aurka nengoela, bat-egiterik ez balego. Era berean, badakizu onar nezakeela sozietatea desegitea (kostuak aurreztuko ditugu biok), baina ez orain. Merkatua egonkortzen denean egingo dugu.

Hitz egingo dugu.

Agur bero bat,

FFF

**67. DDD jaunak FFF jaunari 2013ko urtarrilaren 23an bidalitako mezu elektroniko batean –RAFRINORI egindako ikuskapenean paperean jaso zen– honako hau esaten da (793. folioa):**

Arratsalde on, FFF:

Nire jarrera argia izan da beti:

Hasiera-hasieratik hitz egin dugu aukera horren inguruan, eta egia da mantentzearen alde egiten genuela, baina, beti, bat garela pentsatuta, zuk hainbestetan esan duzun bezala. Zirriborroa –eta data– akordioak idatziz jasotzeko eta berresteko modu bat zen, eremuak errespetatzeko akordioa bezala. Nire jarrera ez da mesfidantzak eragindakoa, eta ez duzu gaia eremu pertsonalera eraman behar. Nire proposamena enpresa-proposamena da soil-soilik, eta ez dut zuk ziurrenik egingo ez zenukeen ezer proposatzen.

Berritot: horrela izan da hasieratik, eta ulertzen dut negoziazioak zuk hasi eta bideratu dituzula, horrela adostu genuelako eragiketan arrakasta izateko, eta, batez ere, eremuak errespetatzeko akordio bat daukagunez, hasieran ez zitzaigun komeni agerian geratzea. Gainera, argi dago esperientzia handiagoa duzula gai hauetan, eta, egindako urratsengatik, oso litekeena zen bi alderdiek bat egitea.

Nire lehen aukera, esan nizun bezala, nire zatia ordaintzea eta bezeroak eta bilketa eramatea da, bai eta dagozkion aktiboen zatia ere.

Dirudien bezala, ez baduzu aukera hori aurreikusten, beste aukera bat izango litzateke egungo egoerarekin jarraitzea.

Recyoil zuena da osorik, eta gure eremuko olio saltzen didazue. Aukera horri dagokionez, Gipuzkoatik ateratzeko eskatuko nizueke, bai eta hasieratik izan dugun eta bete dugun eremuak errespetatzeko akordioa sinatzeko ere.

Beste aukera bat litzateke bazkideen arteko akordio bat ixtea. Recyoil sartuta eta eremuak errespetatzeko akordioa sinatuta, baina aholkulariei galdetu beharko diegu.

Nire asmoa eta helburua beti izan da enpresa bat bera ere ez ateratzea kaltetuta, eta duela hainbeste urte dugun eremuak errespetatzeko akordioak luze irautea, bion onurarako.

Hitz egingo dugu.



## 2. Esleitutako eremutik kanpo zerbitzua emateari uko egitea

**68.** EKOGRAS enpresari Etxarri Aranatzan (Nafarroa) duen egoitzan egindako ikuskapenean karpeta-artxibategi hegaldun bat aurkitu zen, eta «RAFRINOR EREMUA» jartzen zuen (795. folioa).

**69.** Karpeta-artxibategi horretan DDD jaunak, EKOGRASen izenean eta hura ordezkatzuz, Mungiako udalera (2010eko ekainaren 4an) (799. folioa) eta Amorebieta-Etxanoko udalera (2010eko urriaren 22an) (797. folioa) bidalitako idatziak zeuden gordeta, eta honela zioten, hitzez hitz:

Estimado señor o señora:

En primer lugar nos gustaría agradecerles por la invitación que nos enviaron para participar en la adjudicación del servicio de retirada de aceite vegetal doméstico en su municipio.

Después de analizar el presupuesto del servicio y el coste que nos supondría poder ofrecer un servicio adecuado, hemos llegado a la conclusión de que no nos saldría rentable. Es por ello que no vamos a participar en la licitación.

Aprovecho la ocasión para volver a agradecerles.

Un atento saludo,

---

Jaun/andre agurgarria:

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen herrian etxeko landare-olioa biltzeko zerbitzua gauzatzeko esleipenean parte hartzeko bidali diguzuen aukerarengatik.

Zerbitzuaren aurrekontua eta zerbitzu on bat eskaintzeak suposatuko ligukeen kostua aztertu ondoren, errentagarri aterako ez litzagukeela ondorioztatu dugu. Hori dela eta ez dugu esleipenean parte hartuko.

Berriro ere eskerrak emateko aukeraz baliatuz, jaso agur bero bat.

**70.** EKOGRAS enpresari Etxarri Aranatzan (Nafarroa) duen egoitzan egindako ikuskapenean .doc formatuko hainbat fitxategi bildu ziren, sinatuta baina izenpetu gabe. Fitxategi horien artean, DDD jaunak, EKOGRASen izenean eta hura ordezkatzuz, Muskizko (2009ko uztailaren 22an) (803. folioa), Barakaldoko (2009ko irailaren 22an) (801. folioa) eta Artziniegako (2009ko abenduaren 28an) (805. folioa) udaletara bidalitako idatziak zeuden, eta honela zioten, hitzez hitz:

Estimado señor o señora:

En primer lugar nos gustaría agradecerles por la invitación que nos enviaron para participar en la adjudicación del servicio de retirada de aceite vegetal doméstico en su municipio.

Después de analizar el presupuesto del servicio y el coste que nos supondría poder ofrecer un servicio adecuado, hemos llegado a la conclusión de que no nos saldría rentable. Es por ello que no vamos a participar en la licitación.

Aprovecho la ocasión para volver a agradecerles.



Un atento saludo,

Jaun/andre agurgarria:

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen herrian etxeko landare-olioa biltzeko zerbitzua gauzatzeko esleipenean parte hartzeko bidali diguzuen aukerarengatik.

Zerbitzuaren aurrekontua eta zerbitzu on bat eskaintzeak suposatuko ligukeen kostua aztertu ondoren, errentagarri aterako ez litzaigukeela ondorioztatu dugu. Hori dela eta ez dugu esleipenean parte hartuko.

Berriro ere eskerrak emateko aukeraz baliatuz, jaso agur bero bat.

DDD

### 3. Kontratu publikoen banaketa

71. Espedientean dagoen informaziotik (1. pieza bereizia: 1.527-1.531 bitarteko folioak, eta 2. pieza: 2.201-2.203 bitarteko folioak) ondorioztatzen da jokabide arau-hausleak identifikatu diren aldian honela esleitu zirela kontratu publikoak:

EAE-KO TOKI-ADMINISTRAZIOKO LANDARE-OLIO ERABILIA BILTzea ETA KUDEATzea ESLEIPENA RAFRINOR ETA EKOGRAS ENPRESEI 2002TIK 2013KO IRAILAREN 29RA BITARTEKO ALDIA				
	RAFRINOR ETA RECYOIL ENPRESEN KONTRATUAK		EKOGRAS ETA OLIO3R ENPRESEN KONTRATUAK	
	Zenbat	Udalak eta mankomunitateak	Zenbat	Udalak eta mankomunitateak
<b>Bizkaiko udalak</b>	48	Abadiño, Arratzu, Ajangiz, Arrieta, Arrigorriaga, Amorebieta, Abanto, Alonsotegi, Balmaseda, Barakaldo, Bakio, Basauri, Berriz, Busturia, Bermeo, Durango, Elorrio, Erandio, Etxebarri, Forua, Gernika, Galdames, Galdakao, Gatika, Gordexola, Gueñes, Iurreta, Lea Ibarra, Laukiz, Maruri, Meñaka, Mungia, Mundaka, Muskiz, Nabarniz, Orozko, Ortuella, Otxandio, Leioa, Sukarrieta, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trutzioz, Trapagaran, Zaldibar, Zalla, Zierbena.	0	-
<b>Bizkaiko mankomunitateak</b>	6	Arratia, Lea Artibai, Txorierrri, Uribe Kosta, Uribe Butroi, Nerbioi Ibaizabal / Udaltalde 21 (ABEE, ENVISER enpresarekin)	0	-
<b>Gipuzkoako udalak</b>	0	-	4	Azkoitia, Azpeitia, Arrasate, Irun
<b>Gipuzkoako mankomunitateak</b>	0	-	8	Debabarrena, Debagoiena, San Markos, Sasieta, Tolosaldea, Txingudi, Urola Erdia, Urola Kosta
<b>Arabako udalak</b>	7	Aiara, Artziniega, Mañueta, Lapuebla de Labarca, Laudio, Okondo, Zuia	2	Agurain, Arraia-Maeztu



Arabako mankomunitateak	1	Aiara	0	-
-------------------------	---	-------	---	---

**72.** RAFRINOR taldeak landare-olio erabilia biltzeko zerbitzua eman du Bizkaiko 6 mankomunitatetan, eta zuzeneko zerbitzua Bizkaiko 48 udaletan; Arabako mankomunitate batean eta 7 udaletan; eta Gipuzkoako mankomunitate eta udal batean ere ez.

**73.** Aldi berean, EKOGRAS taldeak ez du landare-olio erabilia biltzeko zerbitzurik eman Bizkaiko mankomunitate eta udal batean ere ez; eta zerbitzua eman du Gipuzkoako 4 udaletan eta 8 mankomunitatetan eta Arabako 2 udaletan.

**74.** EKOGRAS eta RAFRINOR taldeak ez dira 2013. urtearen amaierara arte lehiatu, kontrako taldeko enpresek landare-olio erabilia biltzeko zerbitzuak ematen dituzten udal edo mankomunitateetan.

**75.** Hain zuzen ere, EKOGRAS eta RECYOIL (RAFRINOR taldekoak) Gasteizen landare-olio erabilia gaika biltzeko zerbitzua kontratatzeko lizitazioan lehiatu ziren. Lizitazio hori 2013ko abuztuaren 28an argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO)<sup>10</sup>. Eskaintzak aurkezteko epea 2013ko irailaren 27an amaitu zen.

**76.** EKO3R enpresak –EKOGRASEK erosi zuen 2014an–, erosketaren aurretik, Bizkaiko zenbait udaletan eman zituen zerbitzuak, eta zerbitzu horiek ematen jarraitu zuen erosketa egin ondoren.

**77.** 2017tik aurrera, EKOGRAS eta RAFRINOR taldeak landare-olio erabilia biltzeko kontratu publikoen esleipenetan lehiatu dira; besteak beste, toki hauetan (Gasteiz alde batera utzita): Artziniegako udala (2017), Berrizko (2017), Elorrioko (2018) eta Zallako (2018) udalak, eta Debarrenoko (2017) [Mallabia (Bizkaia), Ermua (Bizkaia), Eibar, Soralue, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku] eta Debagoieneko (2017) mankomunitateak (Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati).

#### **4. Enpresen arteko lankidetzak**

**78.** Alderdien arteko merkataritza-lankidetzari dagokienez, agiri bidez egiaztatuta dago EKOGRAS eta RAFRINOR enpresek EKOGRAS BIORECUPERACIONES SL sortu zutela 2002an (IFK: B95207577). Hala ere, EKOGRAS BIORECUPERACIONES SLk

<sup>10</sup> [https://www.araba.eus/botha/Boletines/2013/098/2013\\_098\\_04319.pdf](https://www.araba.eus/botha/Boletines/2013/098/2013_098_04319.pdf)



ez zuen inoiz jarduerarik izan, eta Merkataritza Erregistroan inaktibo egon zen 2007an egindako azken kontu-gordailutik.

- 79.** 2010ean, EKOGRAS eta RAFRINOR enpresek elkarlanean aritzeko harremanak hasi zituzten. 860. folioan jasotakoaren arabera, 2010eko martxoaren 5ean, Elkargik «Sozietate-integrazio prozesu baten aholkularitza, zuzendaritza eta koordinazioarako zerbitzu profesionalak emateko proposamena» aurkeztu zien EKOGRAS eta RAFRINOR enpresei. Proposamen horretan, «sozietate-integrazio prozesu posible batera» bideratuta zegoen eta «integrazioa ekar lezakeen» lanaren aurrekontua egin zuen Elkargik (863. folioa).
- 80.** 2010eko apirilean, Alter Consultingek «jardun profesionalerako proposamen» bat egin zuen, eta, 2010eko abenduan, Elkargik «enpresak baloratzeko zerbitzu profesionalen eskaintzaren proposamen» berri bat aurkeztu zien alderdiei. Proposamen horrek aurreko paragrafoan aipatutako martxoko proposamena birformulatzen zuen.
- 81.** Ez dago jasota proposamen horiek gauzatu direnik, eta, ikustaldian eskatu bazen ere, espedienteari ez zaio gehitu Elkargiren eta/edo Alter Consultingen aholkularitzalaren emaitza.
- 82.** Ez zaio espedienteari erantsi, ezta ere, alderdiek askotan aipatu duten dokumentua, «2012an Garriguesi eskatutako bazkideen akordioa».
- 83.** Beraz, aholkularitza-proposamen horien emaitza edo gauzatzea ez da instrukzioan zehar aurkeztu, ezta LEK-k behin eta berriz informazio gehigarria emateko eskatu ondoren ere. Hori dela eta, ez da egiaztatu integrazio posible horren aurreko aholkularitza-mandatu horiek gauzatu zirenik, eta, beraz, ez dago oinarririk bat-egite saiakerezt hitz egiteko.
- 84.** 2010. urtean EKOGRASek eta RAFRINOREk RECYOILen baterako erosketa aztertu zuten. Enpresa 2008an eratu zen, eta, ordutik, Arabako merkatuan zegoen ezarrita. Azkenik, RAFRINOREk RECYOIL erosi zuen. Espedientean ageri diren mezu elektronikoetatik (789-793 bitarteko folioak), egiaztatu da RAFRINOREk sozietatearen % 100 eskuratu zuela formalki, eta, hala ere, Arabako merkatuan RECYOILen jarduera alderdien artean erdibanatzeko akordioak edo itunak zeudela.



## V. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1. Ebazteko eskumena

#### 85. LDLren 53. artikulua honako hau ezartzen du:

1. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpenek honako hau adieraziko dute:
  - a) Lege honetan edo Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81. eta 82. artikuluetan debekatutako jokabideak izan direla. (...)
2. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpenek honako hau edukiko dute: (...)
  - d) Isunak jarriko dituzte.

#### 86. Bestalde, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen 3. artikulua honako hau xedatzen du:

##### 3. artikulua. Eskumenak:

1.- Lehiaren Euskal Agintaritzak, bere helburuak betetzeko, eskumen hauek izango ditu: zehatzekoa; sustatzekoa; aurkaratzekoa; ebazpenak eta aholkuak ematekoa, eta arbitrajekoa.

2.- Lehiaren Euskal Agentziak zehatzeko prozedurak hasi, izapidetu eta ebatziko ditu lehia murrizten duten jokabideak xedatzen hartuta (hala nola kolusiozko jokabideak, posizio gailenaz abusatzea eta lehia askea faltsutzea interes publikoari eragiten dioten ekintza desleialengatik), lehia defendatzeko araudiak xedatzen duen bezala. Lehiaren Euskal Agintaritzak, eskumen hori erabiliz, honako hau egin dezake:

- a) zehapen-isunak jarri, lehia defendatzeko legeria urratzeagatik.

10. artikulua.- Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak.

Honako hauek dira Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak:

- a) zehapen-prozedurak ebatzea

#### 87. 2017ko maiatzaren 15ean, LEA/AVCk ohar labur bat bidali zion MLBNko Lehiaren Zuzendaritzari, antzemandako jokabideak deskribatzeko, Eskumenak Koordinatzeari buruzko 1/2002 Legearen 2.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik<sup>11</sup>. Bertan, LEA/AVCk adierazi zuen jokabideak aztertzekeko eskumena zuela.

2017ko urriaren 19an MLBNren ofizioa jaso zen, non, jasotako proposamenari jarraikiz, gertaera jakin horiek aztertzeke eta ebaztekeko eskumena LEA/AVCkri zegokiola jotzen zuen. Gainera, MLBNko Lehiaren Zuzendaritzak eskatu zuen, zehapen-espeditentea hastekotan, alderdi interesdun gisa onartzeko.

---

<sup>11</sup> 1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren babesaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzkoa. 2002ko otsailaren 22ko BOE.





**88.** Ondorioz, zehapen-prozedura hau ebazteko eskumena Lehiaren Euskal Kontseiluari dagokio.

## **2. Arau-hauste jarraituari aplikatu beharreko legeria**

**89.** Gertaerek erakusten dute jokabide arau-hausleak denbora asko iraun zuela: 2002tik –edo lehenagotik– 2013ko irailera arte. Aztertutako arau-hauste aldiaren barruan bi araudi egon dira indarrean: (i) 16/1989 Legea, uztailaren 17koa, Lehia Babestekoa (1989ko uztailaren 18ko BOE), eta (ii) 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa (2007ko uztailaren 4ko BOE), gaur egun indarrean dagoena.

**90.** Egotzitako arau-haustea Lege aplikagarri baten baino gehiagoren indarraldian luzatzen den kasuetan, Estatuko lehiaren agintaritzak behin eta berriz adierazi duenez<sup>12</sup>, berdin izango litzateke legezko manu bat edo beste batzuk aplikatzea, baina, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (aurrerantzean, SPAJL) 26. artikulua xedatutakoari jarraikiz, espedientea ireki zaien enpresentzat onuragarriena dena aukeratu behar da, printzipio hauekin bat etorriz: arau-hauslearentzako zehapen-arau kaltegarrienaren atzeraeraginik eza eta onuragarrienaren atzerako eragina, kasuan-kasuan.

**91.** Ondore horietarako, aipatutako lege horien 1. artikulua debekatutako jokabidea bera dela alde batera utzi gabe, 15/2007 Legeak diseinatutako zehapen-araubidea, ikuspegi globaletik, onuragarriagoa da arau-hausleentzat aurreko legeek jasotakoa baino; izan ere, beste judizio-elementu batzuekin batera, badu arau-hausteen mailaketa-sistema bat, aurreko legean ez dagoena, 16/1989 Legearen 10. artikuluan aurreikusitako orokorra baino zenbateko txikiagoa gehieneko mugak ezartzen dizkie zehapen batzuen zenbatekoari, preskripzio-epe txikiagoak ezartzen ditu tipifikatutako jokabide batzuetarako, eta, errukitasun-programa aplikatuta, isuna ordaintzetik salbuetsi ditzaten edo haren zenbatekoa txikiagotu diezaieten eskatzeko aukera ematen die kartel batean parte hartu duten subjektu arau-hausle guztiei.

**92.** Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ez ezik, Auzitegi Nazionalak (aurrerantzean, AN) ere onartu du LDLren

---

<sup>12</sup> Adibide gisa, LBNren Kontseiluaren ebazpenak; 2012ko otsailaren 23koa (S/0244/10 espedientea, Balearretako ontzi-konpainiei buruzkoa) eta 2012ko urriaren 15ekoa (S/0318/10 espedientea, gutun-azalen esportazioei buruzkoa). Halaber, MLBNren ebazpenak; 2014ko irailaren 22koa (S/0428/12 espedientea, paletai buruzkoa), 2014ko abenduaren 4koa (S/0453/2 espedientea, trenbide-errodamenduei buruzko ) eta 2015ko maiatzaren 28koa (S/0471/13 espedientea, AUDI/SEAT/VW kontzesionarioei buruzkoa).



aplikazio onuragarriago hori, 2014ko apirilaren 2ko 1589/2014 epaian (194/2011 errekurtsio-zenbakia) (ECLI: ES:AN:2014:1589), honako hau adierazi baitzuen:

«Hurrengo zioan Lehiaren Batzorde Nazionalak 15/2007 Legearen atzeraeraginezko aplikazio okerra egin duela adierazten du autoreak. Horren aurrean nabarmendu beharra dago egotzitako jokabidea 1989ko otsailaren 8an hasi zela, Lehia Babesteko Legearen (uztailaren 17ko 16/1989 Legea) indarraldian iraun zuela, eta Lehia Defendatzeko Legearen (uztailaren 3ko 15/2007 Legea) garaian jarraitu zuela (2007ko irailaren 1ean jarri zen indarrean), 2008ko otsailaren 28ra arte.

Espedientea 2008ko ekainaren 16an hasi zenez, haren izapideak 15/2007 Legearen prozesu-arauen arabera egin dira, horrela ateratzen baita aipatutako lege-testuaren lehen xedapen iragankorrean ezarritakotik: “Debekatutako jokabideen inguruan lege hau indarrean sartu baino lehen hasitako zehapen-prozedurak hasitako unean indarrean zeuden xedapenen arabera izapidetu eta ebatziko dira”.

Baina zuzenbide materialari dagokionez, adierazi behar da ezen, bi legeen 1. artikulua araututako jokabidea bera dela alde batera utzi gabe, kontua dela 15/2007 Legeak diseinatutako zehapen-araubidea, ikuspegi orokorretik, arau-hausleentzat onuragarriagoa dela aurreko 16/1989 Legeak jasotakoa baino. Hala da, beste judizio-elementu batzuen artean, aurreko legerian ez zegoen arau-hausteen mailaketa-sistemagatik, zehapen batzuen zenbatekoari 16/1989 Legearen 10. artikuluan aurreikusitako orokorra baino zenbateko txikiagoko gehieneko mugak ezartzeagatik, tipifikatutako jokabide batzuetarako preskripzio-epe txikiagoak ezartzeagatik, edo, kasu honetan bereziki nabarmendu beharrekoa, kartel batean parte hartu duten guztientzat zehapena salbuesteko edo txikiagotzea eskatzeko ematen duen aukeragatik.

Horrenbestez, bi legeek jokabide berak zehatz-mehatz zehatzen zituztela kontuan hartuta, haien tratamendua bera da, baita isunaren kuantifikazioa ere, biek adierazten baitute zenbatekoa handitu ahal izango dela Auzitegiaren ebazpenaren aurreko ekitaldi ekonomikoari dagokion salmenta bolumenaren % 10era arte. Hori dela eta, ez dago adierazterik Lege berria egilearentzat kaltegarriagoa denik zaharra baino».

**93.** Zentzu berekoa da ANren 119/2017 epaia, 2017ko martxoaren 23koa (errekurtsio-zenbakia: 218/2013; ECLI:ES:AN: 2017: 1040):

«Zehaztu dugu jada beste batzuetan (ANE, 2016ko martxoaren 16koa, 428/2013 erre., eta 2014ko uztailearen 29koa, 172/2013 erre.) ezen, bi legeen 1. artikulua araututako jokabidea bera dela alde batera utzi gabe, kontua dela 15/2007 Legeak diseinatutako zehapen-araubidea, ikuspegi orokorretik, arau-hausleentzat onuragarriagoa dela aurreko 16/1989 Legeak jasotakoa baino. Hala da, beste judizio-elementu batzuen artean, aurreko legerian ez zegoen arau-hausteen mailaketa-sistemagatik, zehapen batzuen zenbatekoari 16/1989 Legearen 10. artikuluan aurreikusitako orokorra baino zenbateko txikiagoko gehieneko mugak ezartzeagatik, tipifikatutako jokabide batzuetarako preskripzio-epe txikiagoak ezartzeagatik, edo, kasu honetan bereziki nabarmendu beharrekoa, kartel batean parte hartu duten guztientzat zehapena salbuesteko edo txikiagotzea eskatzeko ematen duen aukeragatik».

**94.** Izan ere, LDLren 65. eta 66. artikuluen aplikazioa ezin da alderdi prozesal huts gisa ulertu, funtsezko gisa baizik, eta haren aplikazioari onura ateratzeko aukera da, hain zuzen ere, zehapen-prozedura honetan aplikatu beharreko araua 2007ko LDL izatea



dakarren alderdietako bat, alderdientzat onuragarriagoa dela iritzita. Horrela ere adierazi du desagertutako LBNk hainbat ebazpenetan<sup>13</sup>.

**95.** Oro har eta 2007ko LDLren izaera onuragarriagoa kontuan harturik, hori da zehapen-prozedura honi aplikatu beharreko araua.

### 3. Lehiaren Euskal Kontseiluaren balorazioa

#### A. Tipikotasuna

**96.** Egindako ikuskapenetatik eta instrukzio-egintzetatik ondorioztatzen da RAFRINOR eta EKOGRAS enpresen artean borondate-akordio bat dagoela, EAeko landare-olio erabiliaren bilketa eta kudeaketaren merkatua banatzeko, toki-administrazioak (udalak eta mankomunitateak) esleitutako kontratuen bidez; horrela, enpresa bakoitzak uko egiten dio beste enpresak toki-administrazio bati zerbitzua ematen dion udalerrietan lehiatzeari.

**97.** Honako hau dio 15/2007 Legearen 1.1. artikulua:

1. Debehatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki motak egongo dira debehatuta:

(...)

c) Merkatua edo hornigaien iturriak banatzea.

**98.** LDLren 1. artikulua aplikatzeak, horrenbestez, eragile ekonomiko ezberdinen arteko borondate-kontzertu bat izatea eskatzen du. Horri dagokionez, Auzitegi Gorenaren Epaiak (aurrerantzean, AG), 2007ko ekainaren 19koak (ECLI: ES:TS:2007:4763), honako hau zioen:

Baiki, beraz, Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua hauek aipatzen ditu: «**Alde anitzeko akordioak edo erabakiak**, gehienez ere borondateen bat-etortze adierazi edo ustezkoen isla direnak». Manuaren idazkeratik ondorioztatzen da hori, bai eta Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren praktikaren eta sala horren jurisprudentziaren bidez aipatu manuan txertatu diren kasuetatik ere».

<sup>13</sup> LBNren ebazpenak: 2010eko uztailaren 31koa (S/0120/08 espedientea, Garraio-bitartekariei buruzkoa), 2011ko martxoaren 2koa (S/0086/08 espedientea, Ile-apainketa profesionalari buruzkoa), 2011ko ekainaren 24koa (S/0185/09 espedientea, Fluido-ponpei buruzkoa), 2012ko azaroaren 21ekoa (S/0317/10, artxiboko materialari buruzkoa) eta 2013ko otsailaren 15ekoa (S/0343/11 espedientea, paperaren manipulazioari buruzkoa).



**99.** Kasu honetan, ebazpen honetan azaldutako egitateak –enpresek gauzatutakoak– inplikaturik dauden erakundeek batera jarduteko plan bakar bat izatearen ondorio dira. Plan horretan, ezin hobeto identifika daiteke patroia bera, enpresen jarduketa-unitate koordinatu bat, landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatua toki-administrazioek, udalek eta mankomunitateek esleitutako kontratuen bidez banatzea helburu duena.

**100.** Hala, DDD jaunak eta FFF jaunak (EKOGRAS eta RAFRINOR enpresetako ordezkariak, hurrenez hurren) mezu elektronikoetan esandakoa argia da (mezuak ikuskapenetan bildu ziren):

«Gure errespetuzko akordioei kalterik egin gabe» (2002) (807. folioa).

«Ekograsek Gipuzkoako udalerrak berreskuratuko lituzke» (2002) (807. folioa).

«Erosteke interesa lehia geldiarazteko zen, pantaila gisa erabili, eta kontrolatutako enpresa batekin merkatuan espazio bat hartu ahal izateko» (2013/01/18) (789. folioa).

«Eremuak errespetatzeko akordioa bezala» (2013/01/23) (793. folioa).

«Eremuak errespetatzeko akordioa daukagu» (2013/01/23) (793. folioa).

«Bai eta hasieratik izan dugun eta bete dugun eremuak errespetatzeko akordioa sinatzeko ere» (2013/01/23) (793. folioa).

«Gipuzkoatik ateratzeko eskatuko nizueke» (2013/01/23) (793. folioa).

«Nire asmoa eta helburua beti izan da enpresa bat bera ere ez ateratzea kaltetuta, eta duela hainbeste urte dugun eremuak errespetatzeko akordioak luze irautea, bion onurarako» (2013/01/23) (793. folioa).

**101.** Borondateen akordio hori indarrean egon da 2002tik 2013ko irailaren 27ra arte (egun horretan amaitu zen lehen lizitazioerako eskaintzak aurkezteko epea, eta EKOGRAS taldea eta RAFRINOR taldea Gasteizko Udalean benetan lehiatu zirela egiaztatzen zen).

## **B. Antijuridikotasuna**

### **a. Arau-haustea xedeagatik.**

**102.** LDLren 1. artikulua lehia mugatzea edo faltsutzea «xede» edo «efektu» duten jokabideak debekatzen ditu. Espedientea ireki zaien enpresen arteko akordioen «xede» landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatua toki-administrazioek esleitutako kontratuen bidez banatzea izatea lehiaren aurkako jokabidea da, *per se* edo xedeagatik, eta administrazioak ez du zertan aztertu merkatuan benetan eragindako kaltea. Jurisprudentzia argia da; izan ere, lehia mugatzeko era jakin batzuk, bere izaera dela eta, lehiaren ohiko jokoaren jardun onerako kaltegarritzat har daitezkeela xedatzen du.



**103.** Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (aurrerantzean, EBJA), 2012ko abenduaren 13an C-226/11 auziari buruz emandako epaian, adierazten du «xedeagatiko arau-hasteen» eta «efektuagatiko arau-hausteen» arteko bereizketa dela enpresen arteko kolusiozko era jakin batzuk, izaeragatik beragatik, lehiaren ohiko jokoaren funtzionamendu egokirako kaltegarritzat jo daitezkeela.

**104.** EBJAk 2016ko urtarrilaren 20an C-373/14 auziari buruz emandako epaian honako hau azpimarratzen da: «(...) debekuaren pean erortzeko (...) erabaki batek “xede edo efektutzat” eduki behar du merkatu erkidearen barruan lehiaren jokoa eragozte, mugatzea edo faltsutzea. (...) baldintza horren ordezkotzat izaeragatik, “edo” juntagailuak adierazten duen moduan, erabakiaren xedea bera hartu behar da kontuan lehenik (...)». Hala bada, erabaki batek lehiari izandako eraginak aztertu beharrik ez dago egiaztatuta badago haren xedea lehiaren aurkakoa dela.

**105.** Oraintsuago, 2020ko apirilaren 2ko epaian, EBJAk, Budapest Bank kasuko abokatu nagusiaren ondorioei jarraituz (C228/18 auzia), zentzu berean eman zuen epaia, eta argitu zuen jokabide bat aldi berean izan daitekeela xedeagatiko eta efektuagatiko arau-haustea, baina ondorio horiek ez dira zertan frogatu:

34. Hala bada, erabaki batek lehiari izandako eraginak aztertu beharrik ez dago egiaztatuta badago haren xedea lehiaren aurkakoa dela (2015eko azaroaren 26ko Epaia, Maxima Latvija, C-345/14, EU:C:2015:784, 17. apartatua; eta 2016ko urtarrilaren 20ko Epaia, Toshiba Corporation/Batzordea, -373/14 P, EU:C:2016:26, 25. apartatua).

35. Hain zuzen ere, Justizia Auzitegiaren jurisprudentziatik ondorioztatzen da enpresen arteko koordinazio mota batzuek agerian uzten dutela lehiaren kaltegarritasun-maila nahikoa dela xedeagatik mugatutzat jotzeko, eta, beraz, ez da beharrezkoa horren ondorioak aztertzea. Jurisprudentzia horrek kontuan hartzen du enpresen arteko koordinazio mota batzuk, izaeragatik beragatik, lehiaren ohiko jokoaren funtzionamendu egokirako kaltegarritzat jo daitezkeela (2014ko irailaren 11ko Epaia, MasterCard eta beste batzuk/Batzordea, C-382/12 P, EU:C:2014:2201, 184. eta 185. apartatuak; eta 2016ko urtarrilaren 20ko Epaia, Toshiba Corporation/Batzordea, C-373/14 P, EU:C:2016:26, 26. apartatua).

36. Horrela, erabaki da zenbait kolusiozko jokabide, hala nola prezioak kartelen bidez horizontalki finkatzera daramatenak, ondorio negatiboak eragiteko gai ere izan daitezkeela, batez ere prezioetan, produktuen kantitatean eta kalitatean, eta ez da beharrezkotzat jo behar merkatuan ondorio zehatzak dituztela frogatzea, EBFTren 101. artikuluko 1. apartatu aplikatzearen ondorioetarako. Hain zuzen ere, esperientziak erakusten du jokabide horiek ekoizpena murriztea eta prezioak igotzea dakartela, eta, ondorioz, baliabide gutxi esleitzen direla, kontsumitzaileen kalterako bereziki (2014ko irailaren 11ko Epaia, CB/Batzordea, C-67/13 P, EU:C:2014:2204, 51. apartatua; eta 2015eko azaroaren 26ko Epaia, Maxima Latvija, C-345/14, EU:C:2015:784, 19. apartatua).

Auzitegi Gorenak (AG) bat egin du Europako jurisprudentziarekin, eta hura aipatu du 2015eko abenduaren 9ko Epaian (978/2014 errekurtsio-zenbakia): «(...) “xedeagatiko arau-haustea” dagoela jotzeko zantzu nahikorik ez dagoenean baino ez da eskatzen erabaki baten lehiaren aurkako efektu zehatzak egiaztatzeko. Dena delako erabaki



horrek lehiaren aurkako xedea duela egiaztatuta gelditzen denean, ordea, ez dira egiaztatu behar erabaki horrek lehiaren gainean, eta, ondorioz, aplikatzen den merkatuaren gainean zehazki zer eragin kaltegarri dituen».

**106.** Halakoetan aski da azaltzea erabaki horrek lehiaren jokoaren barne-merkatuan eragotzi, mugatu edo faltsutu ahal duela. Halaber, ANk ere aukera izan du horri buruzko iritzia emateko, 294/2016 epaian (293/2012 errekurtsio-zenbakia, 2016ko uztailaren 15ekoa) (ECLI: ES:AN:2016:2993). Bertan, EBJAk C-8/08 T-Mobile auzian 2009ko ekainaren 4an eman zuen epaia aipatzen du, xedeagatik eta efektuagatik arau-hausteen arteko bereizketaren jurisprudentzia-tratamenduaz aritzen dena, eta nabarmentzen du xedeagatik arau-haustea izango dela jokabidea, bere izaera dela eta, kaltegarria bada lehia askearen funtzionamendu egokirako. Ondorioz, efektuak aztertu beharrik ez litzateke egongo egiaztatzen bada haren xedea lehiaren aurkakoa dela.

**107.** MLBNk eta LEA/AVCk, baita lehiaren gainerako agintariak ere, bestela ezinenez, ebazpenetan aipatutako jurisprudentzia jarraitzen dute<sup>14 15</sup>.

**108.** Zehazki, espediente honetan egiaztatutakoa bezalako enpresen arteko akordio batek, automatikoki, lehia nabarmen faltsutzea dakar, eta akordioan parte hartzen duten enpresei baino ez die mesede egiten, gainerako lehiakideekiko abantaila ematen dielako, eta gainerako lehiakideei EAEko toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) esleitutako kontratuen bidez landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatuan sartzea eragozten edo nabarmen zailtzen dielako. Hori oso kaltegarria da lizitazioen deialdia egin duten administrazioentzat, eta, beraz, kalte egiten die zergadunei.

**109.** Arrazoi berberengatik, RAFRINOR eta EKOGRAS enpresen alegazioak ere ezin dira onetsi; izan ere, alegazio horien arabera, jokabideak efektuengatik egiaztatu behar dira, eta, kasu honetan, ez dira frogatu.

## **b. Merkatuan dituen ondorioak**

**110.** EKOGRASen bederatzigarren alegazioak aipatzen du merkatua sektore bateko enpresen artean banatzeko kolusiozko akordio guztiek berekin dakartzatela prezioei

<sup>14</sup> MLBNren Ebazpena, SAMUR/02/18 espedientearena, Murtziako eskola-garraioari buruzkoa; eta MLBNren Ebazpena, S/DC/0560/15 espedientearena, Guadalajarako Abokatuen Elkargoari buruzkoa

<sup>15</sup> LEA/AVCren Ebazpena, Gipuzkoako bidaiarien garraioari buruzkoa (130-ZEH-2016 zenbakiko espedientea); eta LEA/AVCren Ebazpena, Arrasateko autoeskolei buruzkoa (224-ZEH-2017 zenbakiko espedientea).



buruzko akordioak eta errepresalia-akordioak, horiek errespetatzen ez dituzten beste lehiakideentzat. Enpresaren ustez, kasu honetan ez zaio inori kalterik egin; ez beste lehiakideei, ez administrazioari, ezta zergadunei ere.

- 111.** Halaber, RAFRINOR enpresaren seigarren alegazioaren arabera, lehiaren aurkako ustezko jokabideak ez luke eraginik izango merkatuan. Horretarako, RAFRINORek toki-administrazioei landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko zerbitzua emateko salmenta-prezioaren bilakaerari buruzko azterketa egin du. Horren bidez egiaztatu da bilketa mugikorraren aldian olio biltzeagatik toki-erakundeei fakturatutako batez besteko prezioa orduko 60 eurotan mantendu zela, eta edukiontziaekin biltzeko zerbitzuaren prezioak beheranzko joera izan duela (2014-2018 aldian ere beheranzko joera izan zuen).
- 112.** LEK-k aintzat hartu ditu alegazio horiek; izan ere, enpresen arteko akordioak ez du EAEko toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko esleitutako kontratuen prezioa handitzea eragin.
- 113.** Hala ere, «a. Arau-haustea xedeagatik» apartatuan aztertu dugun bezala, espedientea ireki zaien enpresen jokabidea xedeagatik arau-haustea da, eta horrek esan nahi du merkatua banatzeko akordioa jokabide kaltegarria dela *per se*, eta ez da egiaztatu behar ondorioak izan dituela.

### C. Arau-haustearen astuntasuna

- 114.** LDLren 62. artikulua hiru motatan sailkatzen ditu arau-haustea: arinak, astunak eta oso astunak. Artikulu horretako 4.a) apartatuak arau-hauste oso astuntzat jotzen ditu honako hauek:
- «Kolusiozko jokabideak aurrera eramatea lege honen 1. artikuluan aurreikusitako moduan, baldin eta jokaera horiek **elkarri lehia egiten dioten edo egin diezaioketen enpresen** arteko kartel, akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako praktikak edo nahita paraleloak badira».
- 115.** Espediente honetan aztertutako jokabidea –LDLren 1.1.c) artikulua barruan dago– arau-hauste oso astuntzat hartu behar da, elkarri lehia egiten dioten edo egin diezaioketen enpresek izan dutelako. Hain zuzen ere, jokabide hori izan duten enpresek espediente honetan zehaztutako merkatu adierazgarrian jarduten dute, EAEko toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) esleitutako kontratuen bidez landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatuan, alegia.
- 116.** Ondorioz, Lehiaren Euskal Kontseiluaren iritziz, aztertutako arau-haustea oso astuntzat jo behar dira 62.4.a) artikuluan datorrenari erreparatuta.



**117.** Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 63.1 artikuluan datorrenez, lege honetan xedatutakoa nahita edo utzikeriagatik urratzen duten eragile ekonomiko, enpresa, enpresen elkarte edo batasun nahiz taldeei, zehapen hauek jarriko dizkiete horretarako eskumena duten organoek:

c) Arau-hauste oso astunen kasuan, araua hautsi duen enpresak isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan zuen negozio-bolumenaren ehuneko 10era arteko isuna.

**118.** Negozio-bolumena mugatzea ezinezkoa bada, LDLren 63.3 artikulua araberaz zehatuko dira arau-hausteak:

c) Arau-hauste oso astunen kasuan, 10 milioi eurotik gorako isuna.

#### **D. Arau-hauste bakar eta jarraitua**

**119.** Arau-hauste bakar eta jarraitua da: landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatua banatzea, toki-administrazioek 2002tik 2013ko irailaren 27ra arte esleitutako kontratuen bidez. Ebazpen honetako «Frogatutako egitateak» apartatuan, merkatua banatzeko akordio bat dagoela egiaztatzen duten mezu elektronikoak daude jasota (IV. epigrafea).

Gainera, arau-hausteak iraun bitartean, hiru lurralde historikoetako udalen eta mankomunitateen kontratu publikoak esleitzeak frogatzen du enpresa bakoitzerako adostutako eremuak errespetatzen direla.

EAE-KO TOKI-ADMINISTRAZIOKO LANDARE-OLIO ERABILIA BILTZEA ETA KUDEATZEA ESLEIPENA RAFRINOR ETA EKOGRAS ENPRESEI 2002TIK 2013KO IRAILAREN 29RA BITARTEKO ALDIA				
		RAFRINOR ETA RECYOIL ENPRESEN KONTRATUAK	EKOGRAS ETA OLIO3R ENPRESEN KONTRATUAK	
	Zenbat	Udalak eta mankomunitateak	Zenbat	Udalak eta mankomunitateak





<b>Bizkaiko udalak</b>	48	Abadiño, Arratzu, Ajangiz, Arrieta, Arrigorriaga, Amorebieta, Abanto, Alonsotegi, Balmaseda, Barakaldo, Bakio, Basauri, Berriz, Busturia, Bermeo, Durango, Elorrio, Erandio, Etxebarri, Forua, Gernika, Galdames, Galdakao, Gatika, Gordexola, Gueñes, Iurreta, Lea Ibarra, Laukiz, Maruri, Meñaka, Mungia, Mundaka, Muskiz, Nabarniz, Orozko, Ortuella, Otxandio, Leioa, Sukarrieta, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trutzioz, Trapagaran, Zaldibar, Zalla, Zierbena.	0	-
<b>Bizkaiko mankomunitateak</b>	6	Arratia, Lea Artibai, Txorierrri, Uribe Kosta, Uribe Butroi, Nerbioi Ibaizabal / Udaltalde 21 (ABEE, ENVISER enpresarekin)	0	-
<b>Gipuzkoako udalak</b>	0	-	4	Azkoitia, Azpeitia, Arrasate, Irun
<b>Gipuzkoako mankomunitateak</b>	0	-	8	Debabarrena, Debagoiena, San Markos, Sasieta, Tolosaldea, Txingudi, Urola Erdia, Urola Kosta
<b>Arabako udalak</b>	7	Aiara, Artziniega, Mañueta, Lapuebla de Labarca, Laudio, Okondo, Zuia	2	Agurain, Arraia-Maeztu
<b>Arabako mankomunitateak</b>	1	Aiara	0	-

**120.** Arau-hauste bakar eta jarraituaren kontzeptua Auzitegi Gorenak eta Auzitegi Nazionalak aztertu dute jurisprudentzia etengabe eta finkatuan. Hala, Auzitegi Gorenak arau-hauste bakar eta jarraitua dagoela jotzen du 2015eko otsailaren 9ko 508/2015 Epaian (González Byass auzia, 1531/2013 errekurtsio zk., ECLI:TS:2015:508), eta, horretarako, Europako jurisprudentzia aipatzen du, enpresen aldetik helburu komuna egotea nabarmentzen duena:

«Erkidegoko jurisprudentziak ezarri duenez, jokabide horiek ebaluatzeko aintzat hartu behar da ea osagarritasun-harreman bat agertzen duten; hau da, ea bakoitza lehia-joko normalaren ondorioetako bati edo hainbati aurre egitera bideratuta dagoen, eta ea, elkarreraginez, egileek bilatu moduan lehiaren aurkako emaitza multzo bat gauzatzen laguntzen duten, helburu bakar bat lortzera zuzendutako plan orokor baten barruan».

**121.** Auzitegi Gorenak, 2015eko urriaren 27ko 4653/2015 Epaia (1039/2013 errekurtsio zk., ECLI: ES:TS:2015:4653) laugarren oinarri juridikoan, honako hau adierazten du:

«LAUGARRENA.- Hirugarren kasazio-arrazoia, jurisprudentzia oker aplikatzeagatik jarria, epaiak arau-hauste bakar eta jarraituaren kontzeptua bidegabe aplikatu duelako. Auzialdiko epaiaren kontra agertzen da, epai horrek arau-hauste bakar eta jarraituaren kontzeptua ikusten baitu, 2004ko azarotik 2009ko otsailera arte. Hala, adierazten du kontratatze baldintza orokorre buruzko gomendioak, estatistikek eta lanorduen tarifei eta salmenta osteko zerbitzuei buruzko informazio-trukeek helburu ezberdinak izan zituztela, ezberdin egin zirela eta aldi ezberdinetan gauzatu zirela, eta ez zutela izan, horrenbestez, arau-hauste bakar eta jarraitua osatzeko ekintza-aniztasun bati eskatu beharreko erabaki- eta xede-batasunik.



Arrazoa ere ezin da jaso. 1038/2013 KEan emandako epaian adierazi bezala, alderdi errekurtsogileak aipatutako jokabideen heterogeneotasunak ez du eragozten jokabide horiek zehapena jaso duten enpresak, lehiakideen merkataritza-jokabideari buruzko ziurgabetasuna txikiagotzeko, elkarrekin izaniko arlo ezberdinetako lankidetzaren baten barruan sartzea; era horretan, lehiaren aurkako xede-batasun horren ondorioz, arau-hauste bakar eta jarraitua osatuta. Horrek ez du inola ere eragozten ekintzak helburu zehatz desberdinetara bideratuta egotea. Helburu espezifikoaren eta betearazpen-uneen aniztasun horrek ez du eragozten aztertutako jokabide guztiek lehiaren aurkako helburu komun bat izatea, eta horrek bide ematen du arau-hauste bakar eta jarraitutzat jotzeko».

**122.** Era berean, ANk arau-hauste jarraituen ezaugarriak garatzen ditu 2014ko uztailaren 23ko 3454/2014 Epaian (errekurtso-zenbakia: 176/2013; ECLI: ES:AN:2014:3454) eta 2014ko apirilaren 7ko 1880/2014 Epaian (errekurtso-zenbakia: 570/2010; ECLI: ES:AN:2014:1880). Epai horiek esan nahi dute ezen, hainbat urtez irauten duen arau-hauste baten esparruan, hitzarmen-zantzuak aldi desberdinetan agertzeak ez duela galarazten horiek arau-hauste bakartzat jotzea, baldin eta jarduketa- eta xede-batasunaren elementua identifikatu badaiteke. Arau-hauste bat bakar eta jarraitutzat jotzen laguntzen duten hainbat irizpide zehazten ditu horretarako: (i) aztertutako praktiken **helburuak**, (ii) **produktu eta zerbitzuak**, (iii) **parte hartzen duten enpresak**, (iv) **gauzatzeko moduak** berberak izatea, eta (v) aztertutako praktiken **aplikazio-eremu geografikoa** berbera izatea. Baldintza horiek guztiak betetzen dira aztergai dugun kasuan, eta jokabidea homogeneotzat har daiteke aldi osoan zehar; arau-hauste bakar eta jarraitua dago argi eta garbi.

### **E. Azalpen alternatiboak. Bat egiteko saiakerak**

**123.** Prozeduran zehar, RAFRINOREk eta EKOGRASEk behin eta berriz alegatu dute bat egiteko hainbat saiakera egon direla. Hala ere, frogatutako gertaerek erakusten dute ustezko saiakera horiek ez zirela halakoak izan, edo, bestela, negoziazio-fase hasiberri batean gertatu zirela.

**124.** Horrela, 2002an, EKOGRAS eta RAFRINOR enpresek ECOGRAS BIORECUPERACIONES SL enpresa sortu zuten (IFK: B95207577). Hala ere, ECOGRAS BIORECUPERACIONES SLk ez zuen inoiz jarduerarik izan, eta Merkataritza Erregistroan inaktibo egon zen 2007an egindako azken kontu-gordailutik.

**125.** 2010ean, EKOGRAS eta RAFRINOR enpresek elkarlanean aritzeko harremanak hasi zituzten. 860. folioan jasotakoaren arabera, 2010eko martxoaren 5ean, Elkargik «Sozietate-integratioko prozesu baten aholkularitza, zuzendaritza eta koordinaziorako zerbitzu profesionalak emateko proposamena» aurkeztu zien EKOGRAS eta RAFRINOR enpresei. Proposamen horretan (863. folioa), «sozietate-integratioko



prozesu posible batera» bideratuta zegoen eta «integrazioa ekar lezakeen» lanaren aurrekontua egin zuen Elkargik.

**126.** 2010eko apirilean, Alter Consultingek «jardun profesionalak emateko proposamen» bat egin zuen, eta, 2010eko abenduan, Elkargik «enpresak baloratzeko zerbitzu profesionalak emateko proposamena» berri bat aurkeztu zien alderdiei. Proposamen horrek martxoko proposamena birformulatzen zuen.

**127.** Hala ere, aholkularitza-proposamen horien emaitza edo gauzatzea ez da instrukzioan zehar aurkeztu, ezta LEK-k behin eta berriz informazio gehigarria emateko eskatu ondoren ere. Hori dela eta, ez da egiaztatu integrazio posible horren aurreko aholkularitza-enkargu horiek gauzatu zirenik, eta, beraz, ez dago oinarririk bat-egite saiakereaz hitz egiteko. RAFRINOREk espediente osoan zehar behin eta berriz alegatu badu ere bazkideen akordioa eskatu ziola Garriguesi 2012an, ez du aurkeztu.

**128.** Nolanahi ere, alderdiek alegatu dituzten bat egiteko ustezko saiakera horiek lehendik merkatua erdibanatzearen ondorio dira. Landare-olio erabilia biltzeko merkatua erdibanatzea fusionatzeko saiakerak baino lehenagokoa da, eta egitatezko egoera bat formalizatu besterik ez zuten nahi, *statu quo* bat.

**129.** Hori erakusten dute RAFRINOREn mezu elektronikoek, Recyoil erosi behar zuenean (ikus 789-793 bitarteko folioak). RAFRINOREk % 100ean erosi zuen enpresa hori, alderdiek Araban zituzten akordioen pantaila gisa erabiltzeko.

**130.** Hala ere, alderdiek ez zuten akordiorik lortu merkataritza-eragiketa hori formalizatzeko, eta negoziazioak eten ziren.

**131.** Are gehiago, adierazi behar da egiazko bat-egite saiakerak egin izan balira ere, saiakera horiek ez luketela justifikatuko ez lehiatzeko eta merkatua erdibanatzeko akordioa, hain aspaldikoa izanik. Horri dagokionez, zera zioen 2007ko urriaren 18ko LBNren ebazpenak (617/06 espedientea) Euskal Kutxak eta Caja Navarra auziari buruz (Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak berretsi zuten ebazpena, zehapenaren kuantifikazioari dagokionez izan ezik):

«Aurrekoa alde batera utzi gabe, argudiatzen bada ere bat-egite baten aurrean hedapen-planak koordinatzea justifika daitekeela, bulegoen eta sukurtsalen gainjartzeak saihesteko, argudio hori onargarria izan liteke soilik koordinazio hori bat-egitearen aurreko denbora-tarte labor batean egin bada, kasu honetan ez bezala. Ez dira soilik kutxen arteko *statu quoa* errespetatzeko akordioak, horietatik batek gutxienez inoiz ez baitu bat egitea proposatu; aldiz, iraupen luzeko akordioak dira, hamabost urtekoak, gutxienez. Hau da, 1990etik 2005eko urrian espedientea ireki zen arte. Iraupen luze horrek indargabetu egiten du bat-egite baten esparruko koordinazioa justifikatzen duen edozein argudio, amaieran baino ez baitute aipatzen.



**132.** Ondorioz, LEK-k ezetsi egin behar ditu alderdiek egindako alegazioak, alegiazko bat-egite saiakera batzuen bidez justifikatu nahi baitute merkatua erdibanatzeko egiazko akordioa.

## F. Arau-hausteen preskripzioa

**133.** Frogatutako jokabideak 2013ra arteko arau-hauste bakar eta jarraitutzat hartzeak indarrrik gabe uzten du enpresen jokabide hori preskribatzea eskatzeko aukera oro. Nolanahi ere, egitateak aztertu ditugu hau frogatzearen: espedientea ireki zaien enpresek alegatutakoaren kontra, erantzukizuna ez dela preskripzioz amaitu.

**134.** Arau-haustearen preskripzioak esan nahi du ezin dela administrazioko arau-hauste hori zehatu. Auzitegi Gorenaren definizioaren arabera, diziplinazko faltak jazartzeko orduan Estatuak bere buruari jarritako muga bat da preskripzioa. Hala bada, denbora igarotzeak kendu egiten die zehatzeko ahala duten agintariei dagokion zentzagarria jarriz erabiltzeko ahalmena.

**135.** Preskripzioa automatikoki gertatzen da, *ope legis*, legez finkatutako epea igarotze hutsagatik. Hori dela eta, ofizioz onar daiteke<sup>16</sup>.

**136.** LDLren 68. artikulua honako hau xedatzen du:

1. Arau-hauste oso astunak lau urteren buruan preskribatuko dira; astunak, bi urteren buruan, eta arinak, urtebetera. Preskribatzeko epea arau-haustea egin den unetik hasiko da zenbatzen, edo, behin eta berriz egindako arau-hausteen kasuan, horiek egiteari utzi zaionetik. (...)

3. Preskripzioa eten egingo da administrazioak **interesdunari formalki jakinarazita** burututako edozein ekintzagatik, legeak dioena betetzea helburu duenean, edo interesdunek, kasuan kasuko ebazpenak ziurtatu, osatu edo betearazteko gauzatutako ekintzengatik.

**137.** 2016ko uztailaren 14an, Ikerketako zuzendariak baimendutako langileek aurrekarietan aipatutako ikuskapenak egin zituzten honako enpresa hauen egoitzan:

- EKOGRAS: Donostiako egoitza eta Etxarri Aranazko egoitza
- RAFRINOR: Ortuellako egoitza

**138.** Horrenbestez, ikuskapenaren egunean (2016ko uztailaren 14an) eten zen enpresa horientzat arau-haustea preskribatzeko epea, lehiaren arloko legez kontrako batengatik ikerketapean zeudela formalki jakinarazi zitzaizen eta.

---

<sup>16</sup>Auzitegi Gorenaren 6880/1999 Epaia, 1999ko azaroaren 2koa (ECLI: ES: TS:2000/1849); 1849/2000 Epaia, 2000ko martxoaren 8koa; 2388/2000 Epaia, 2000ko martxoaren 24koa (ECLI:ES: TS:200: 2388).



**139.** Ondorioz, espedientea hasi zitzairen enpresek espedientearen berri jaso zuten egun hauetan:

ENPRESA	IKERKETA EDO HASIERA EMATEKO EBAZPENA ETA HAREN ZABALPENAREN FORMALKI EZAGUTZEA	FROGATUTAKO AZKEN JARDUKETA ARAU-HAUSLEAK	IGAROTAKO DENBORA
EKOGRAS	2016/07/14	2013/09/27	4 urte baino gutxiago
RAFRINOR	2016/07/14	2013/09/27	4 urte baino gutxiago

**140.** Preskripzioaren epearen *dies a quo* azken jokabidea amaitzen den unetik hasten da zenbatzen. Hori horrela, frogatutako azken jarduketa arau-hausleak Gasteizko Udalak 2013ko irailean deitutako lizitazioan eskaintzak aurkezteko epea amaitzen zen egunean jaso ziren. Lizitazio horretan egiaztatu zen lehia benetakoa zela.

**141.** EKOGRASek, bere **lehen alegazioan**, arau-haustearen preskripzioa aipatzen du, aurkeztutako mezu elektronikoko batzuk oinarri hartuta. Bere ustez, mezu horiek frogatuko lukete EKOGRASen eta RECYOILen (RAFRINOR taldekoa) artean benetako lehia zegoela, 2010eko ekainaren 4az geroztik Gasteizen kontratu publiko baten esleipena bilatzeko. Aipatutako mezu elektronikoetan –DDD jaunak Gasteizko Udaleko arduradun bati bidali zizkion, 2010eko ekainaren 4aren eta 2011ko ekainaren 6aren bitartean– ikusten da EKOGRASek Gasteizen zerbitzua emateko interesa duela, eta edukiontzi moten berri ematen dio arduradunari.

**142.** RAFRINOREk, halaber, bere **lehen alegazioan** adierazten du merkataritza-jarduera etengabea eta saiaturia egin duela, gutxienez 2010. urtetik, kasuan kasuko agintariek beren zerbitzuak eskatzeko, zerbitzu horiek emateko kontratuak lortzeko edo lizitazio potentzialen berri izateko. Horretarako, RAFRINOREko langile baten eta RECYOILEko langile baten zinpeko adierazpenak aurkeztu ditu.

**143.** LEKren iritziz, dokumentu horiek frogatzen dute EKOGRASek eta RAFRINOREk Gasteizen zerbitzuak emateko interesa zutela, baina ez dute erakusten data horietan bi taldeetako enpresen artean benetako lehia zegoenik. Izan ere, enpresa askok izan dezakete administrazio bati zerbitzu emateko interesa, baina, gero, edozein arrazoi dela eta, ez dira guztiak lizitaziora aurkeztu.

**144.** Gainera, ebazpen honetako «Egitate frogatuak» apartatuan transkribatutako mezuetan adierazten den moduan, 2013ko irailera arte, egiaztatuta dago Araban lehia geldiarazi nahi zutela, Recycoil sozietateari buruzko borondate-akordio baten bidez:

1.- Eragiketa hau 2010eko ekainaren 24an hasi zen; hau da, zure zirriborroa jaso baino 9 hilabete lehenago. Erosteko interesa lehia geldiarazteko zen, pantaila gisa erabili, eta kontrolatutako enpresa batekin merkaturuan espazio bat hartu ahal izateko. Ez dugu inoiz hitz egin erosteaz eta desegiteaz, baina bai kantitatea gure eremuen arabera banatzeaz.



- 145.** Benetako lehia gertatzen da lizitazioa deitu ondoren enpresek beren proposamenak aurkezten dituztenean, eta ez lizitazio-pleguak argitaratu baino askoz ere lehenago (ia hiru urte lehenago) administrazio batekin hitz egiten dutenean.
- 146.** Hori dela eta, 2013ko irailaren 27a da jokabidearen amaiera-eguna (egun horretan amaitu zen Gasteizko Udalak deitutako lizitaziorako eskaintzak aurkezteko epea, eta EKOGRAS taldea eta RAFRINOR taldea Gasteizko Udalean benetan lehiatu zirela egiaztatu zen), eta ez da preskribatutzat jo behar jokabide arau-hauslea.
- 147.** Ondorioz, alegazioa ezetsi behar da.
- 148.** EKOGRASek, gainera, bere **bigarren alegazioan** aipatzen du 2011ko urriaz geroztik egiaztatu daitekeela EKO GASTEIZ SL, EKOGRAS eta RECYOIL (RAFRINOR taldekoak) enpresak benetan lehiatu zirela etxeko olio erabiliaren merkatuan, baina EKO GASTEIZ SL enpresaren lehia-estrategia jabeen erkidegoek zuzenean erostean oinarritzen zen. Hau da, hiru operadore ari ziren lehian, eta, beraz, 2011ko urrian ere arau-haustea preskribatuta legoke.
- 149.** Horri dagokionez, esan beharra dago aurkeztu duten dokumentuak salaketa jarri duen enpresak Gasteizen etxeko olioaren merkatuan jardun duela egiaztatzen duela, baina ez du egiaztatzen EKOGRAS eta RAFRINOR elkarrekin lehiatu zirenik; beraz, LEK-k berriz ere adierazten du jokabidearen amaiera-eguna 2013ko irailaren 27a izan beharko litzatekeela eta, ondorioz, ez litzatekeela preskribatutzat jo behar jokabide arau-hauslea.
- 150.** Ondorioz, alegazioa ezetsi behar da.
- 151.** Era berean, RAFRINORek, bere **lehen alegazioan**, alegatzen du –egitateak zehazteko orria jakinaraztean alegatu zuen bezala– udalerrien ustezko banaketa preskribatuta egongo litzatekeela; izan ere, haren ustez, orria jakinarazi zitzaizkionean (2019ko uztailaren 2an) eman zioten jokabide hori zehazteko ikerketaren berri.
- 152.** Alegazio horri dagokionez, berriz ere adierazi behar da Ikuskapen Aginduan dagoeneko aipatu zela Euskal Autonomia Erkidegoa zela eragindako merkatua («**EAEko** landare-olioa erabilia biltzeko, kudeatzeko eta balorizatzeke merkatua») eta, itxura, toki-administrazioen merkatua erdibanatzen zutela («Ikuskatzen ari diren enpresek akordioak egin ahal izan dituzte landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko zerbitzua emateko **toki-erakunde**en lizitazioak lurraldeka banatzeko»).



- 153.** Ikuskapen Agindu horretan honako hau aipatu zen, baita ere: «Rafrinor enpresak Bizkaira mugatzen ditu bere jarduerak, baina ez da inoiz saiatzen Gipuzkoako kontratuak eskuratzen; eta, alderantziz, Ekograsek Gipuzkoan jarduten du, baina inoiz ez Bizkaian». Eta baieztapen hori ez dute inola ere gezurtatu espedientea izapidetu den bitartean, espedientepeko enpresa bat ere ez baitzen saiatu beste enpresak jarduten zuen lurralde historikoko (Bizkaia eta Gipuzkoa) udalerrietako kontratuak eskuratzen, 2002. urtetik 2013ko irailera arte.
- 154.** Ondorioz, alegazio hori ezetsi behar da.
- 155.** EKOGRASen **laugarren alegazioak** espedientearen preskripzioa aipatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehatzeko ahalari buruzko Legearen (otsailaren 20ko 2/1998 Legea) 22.3 artikuluan ezarritakoaren arabera. Izan ere, informazio erreserbatua geldirik egon zen 2018ko maiatzaren 31tik 2019ko otsailaren 25era bitartean, eta, geldirik zegoenez, arau-haustetik berrekin zitzaion preskripzioari alde aurreko informazio-fase horrek preskripzioa etetea eragin gabe.
- 156.** Horri dagokionez, 2/1998 Legearen 1. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan zehatzeko ahala duten erakunde guztiek aplikatuko dutela legea, bai eta araugintza-eskumenak dituzten erkidegoko erakunde komunek ere, eskumen horiek osoak edo Estatuarekin edo lurralde historikoetako organoekin partekatua diren alde batera utzita. Horrela, EAEk ez duenez araugintza-eskumenik, ez osoa ez partekatua, lehiaren defentsaren arloan, aipatutako Legea ez da aplikagarria.
- 157.** Hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiaren 1999ko azaroaren 11ko 208/1999 Epaiak (ECLI:ES:TC:1999:208)<sup>17</sup> partzialki onetsi zituen Eusko Jurlaritzak eta Kataluniako Generalitateko Kontseilu Betearazleak jarritako inkonstituzionaltasun-errekurtsoak, eta, ondorioz, konstituzioaren aurkakotzat jo zuen «Estatuko merkatu osoan edo zati batean» delako klausula (espresuki edo igorpen bidez jaso dago Lehia Babesteko uztailaren 17ko 16/1989 Legearen zenbait artikulutan), ez zekielako lehiaren defentsari buruzko estatu mailako legeriako zer eskumen betearazle eman zitzaizkien errekurtsoa aurkeztu zuten autonomia-erkidegoei beren estutuetan.
- 158.** Beraz, EAEk lehiaren defentsaren arloko araugintza-eskumenik ez duenez, eta Estatuako legeriaren eskumen betearazleak baino ez dituenek, LDLk eta LDEk arautzen dute lehiaren defentsa, edukiari eta prozedurari dagokienez. Ondorioz, arau multzo horrek du lehiaren defentsaren arloan debekatutako jardunbideak

---

<sup>17</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-T-1999-23950>



erreprimitzeko eta zehatzeko ahala, eta izaera berezia du, Estatuan edo autonomia-erkidegoan ekitaldi horretan egon litekeen esparru orokorraren aldean.

**159.** Are gehiago, LDLren 45. artikulua honako hau ezartzen du, argi eta garbi:

Lehiaren defentsaren arloko administrazio-prozedurak lege honetan eta berau garatzeko araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta, osagarri gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera [egungo 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena], alde batera utzi gabe lege honen 70. artikulua.

**160.** Hau da, lehiaren defentsari buruzko araudian lege-hutsuneren bat egonez gero, administrazio-prozedura orokorrari buruzko Estatuko araudira jo behar da (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena), eta ez zehapen-prozedurari buruzko autonomia-erkidegoko araudira.

**161.** Ondorioz, alegazio hori ezetsi behar da.

### **G. Zuzeneko probak**

**162.** EKOGRASen **zazpigarren alegazioan** aipatzen da ez dela inolako probarik egin espedientea ez hasteko proposamenaren ondorioak indargabetzeko. Enpresaren ustez, 2013ko mezu elektronikoen azaltzen dute zergatik ez ziren balizko akordioak beteko, eta, beraz, horrek frogatuko luke ez zirela gauzatu. Uste du LEA/AVCk iruzurrezko praktika bat egin duela, mezu horiei espedientea ez hasteko proposamenean eman zien esanahiaren kontrakoa eman dielako, eta, ondorioz, ez dagoela beste modu batean ulertzea ahalbidetzen duen froga osagarriarik.

Era berean, RAFRINOR enpresak bere **hirugarren alegazioan** aipatzen duenez, arau-haustearen deklarazioa eta zehapen-proposamena zantzu ahuletan oinarritzen dira, eta ebazpen-proposamenak oker baloratzen ditu arau-haustearen ustezko zantzuak, presuntzioen frogaren konstituzio-betekizunak ez betetzeagatik.

**163.** Horri dagokionez, adierazi behar da zehapen-prozedura hau ez dela presuntzioen frogan oinarrituta bideratzen ari, egoitzen ikuskapenetan jasotako frogak zehatzetan oinarrituta baizik, bi enpresek merkatu adierazgarrian duten jardunaren azterketarekin indartuta.

**164.** Era berean, ebazpen-proposamenean egin zen bezala, esan behar da IZk zehapen-prozedurarik ez hastea proposatu zuela, jokabideak preskribatutzat jotzen zituelako, probetako baten pasarte bat –2013ko urtarrilaren 23ko mezu elektronikoa, DDD





jaunak FFF jaunari Gipuzkoatik ateratzeko eskatzen diona, bai eta beti izan eta bete dituzten eremuak errespetatzeko akordioa sinatzeko ere– honela interpretatzeagatik: Gipuzkoatik ateratzea eskatzen bazion, bertan zerbitzua ematen ari zirelako zen, eta, ondorioz, ez zen akordioa betetzen ari; eta, akordioa sinatzeko eskatzen bazion, berriz, sinadurarik ez izateak beste alderdiak akordioa betetzeko betebeharra kentzen ziolako zen.

**165.** Espedientean dauden mezu guztiak eta preskripzioa zegoela ikusita, LEK-k ez zuen interpretazio horrekin bat egin.

**166.** LEK-k mezu horri buruz egiten duen interpretazioa hau da: mezu horren amaieran, DDD jaunak FFF jaunari esaten dio bere helburua eta asmoa dela «*duela hainbeste urte*» duten eta «*hasieratik izan eta bete*» duten eremuen akordioak irautea, bien onurarako; beraz, soilik ondoriozta daiteke, 2013ko urtarrilaren 23an, RAFRINOR eta EKOGRAS enpresen akordioak indarrean jarraitzen zuela, edozer akordio edo kontratu ezartzean ohikoak diren unean uneko ez-betetzeak edo desadostasunak alde batera utzita –halakorik egon bada–. LEK-k nahikoa frogatzat jotzen ditu mezu horiek; logikoagoa eta zuzenagoa iruditzen zaio interpretazio hori, eta eztabaidaezina, berriz, lehen nabarmendutako adierazpenak.

**167.** Ondorioz, alegazioa ezetsi behar da.

## **VI. AURKEZTUTAKO BESTE ALEGAZIO BATZUEN AZTERKETA**

### **1. Prozeduraren deuseztasuna**

#### **A. LDEren 27. artikulua urratzea**

**168.** Bi enpresek (RAFRINOR, aurreko alegazioan, eta EKOGRAS, bosgarren alegazioan) alegatzen dute prozedura deuseza dela, LDEren 27. artikulua urratzen duelako.

**169.** EKOGRASek adierazten du ez dagoela espedientea hasteko proposamen berririk, ez eta espedientea ez hasteko aurreko proposamena zuzentzen duen ezer ere; LEK-k ere ez du adierazi arau-haustearen zantzurik dagoenik, eta ez du zehapen-espedientea hasteko eskatu.

**170.** RAFRINORek, bestalde, esan du IZk ez duela inolako justifikaziorik eman 2019ko otsailetik bere ekintzen aurka hartutako iritzi-aldaketa erradikala arrazoitzeko.



**171.** Hala, adierazi behar da LDEren 27. artikulua honako hau ezartzen duela:

1. Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluak prozedura ez hasi eta uztailearen 3ko 15/2007 Legearen 44. eta 49.3 artikuluetan ezarritako baldintzetan jarduerak artxibatze aldera, Ikerketa Zuzendaritzak jasotako salaketaren, aurretiaz egindako jardueren eta, hala denean, artxibatze proposamenaren berri emango dio.
2. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, artxibatze proposamena ikusi ondoren, lehiaren defentsari buruzko araudia urratu izanaren zantzuak egon daitezkeela uste badu, Ikerketa Zuzendaritzari dagokion espediente irekitzeko eskatuko dio.

**172.** Kasu honetan, IZk 2018ko maiatzaren 2an proposatu zuen zehapen-prozedurarik ez hastea EAEn landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatuari dagokionez, aipatutako artikulua 1. zenbakian ezarritakoaren arabera. Honako hauetan oinarritzen zen IZk LEKri egindako artxibo-proposamen hori:

- Ebazpen-proposamenaren 43. lerrokadan (1.410. folioa) adierazten denez, DDD jaunaren eta FFF jaunaren arteko mezu elektroniketatik ondorioztatzen da (ikusketan bildu ziren mezuek) eremu buruzko akordioak egon zirela. Akordio horien arabera, RAFRINORek Bizkaian bakarrik jardungo zuen, eta ez zen saiaturik Gipuzkoako kontratuak eskuratzen; EKOGRASEk, aldiz, Gipuzkoan bakarrik jardungo zuen.
- 45. lerrokadan (1.411. folioa) esaten da eremuen akordioa *per se* zeha daitekeela, baina behin eta berriz egindako ez-betetzeek ez diote eragozten indarraldi osoa LDLren 1. artikuluan sartzea.
- 46. eta 58. lerroketan (1.411. folioak eta hurrengoak), 2013ko urtarrilaren 23ko mezu elektronikoen interpretazioa egiten da, eta, LEKren ustez, interpretazio hori ez dator bat ikusketan zuzeneko frogaren gisa bildu ziren mezuen hitzez hitzekotasun nahikoarekin:

Arratsalde on, FFF:

Nire jarrera argia izan da beti:

Hasiera-hasieratik hitz egin dugu aukera horren inguruan, eta egia da mantentzearen alde egiten genuela, baina, beti, **bat garela pentsatuta**, zuk hainbestetan esan duzun bezala. Zirriborroa –eta data– akordioak idatziz jasotzeko eta berresteko modu bat zen, **eremuak errespetatzeko akordioa bezala**. Nire jarrera ez da mesfidantzak eragindakoa, eta ez duzu gaia eremu pertsonalera eramanez behar. Nire proposamena enpresa-proposamena da soil-soilik, eta ez dut zuk ziurrenik egingo ez zenukeen ezer proposatzen.

Berriro diot: horrela izan da hasieratik, eta ulertzen dut negoziazioak **zuk hasi eta bideratu dituzula, horrela adostu genuelako eragiketaren arrakasta izateko, eta, batez ere, eremuak errespetatzeko akordio bat daukagunez, hasieran ez zitzaigun komeni agerian geratzea**. Gainera, argi dago esperientzia handiagoa duzula gai hauetan, eta, egindako urratsengatik, oso litekeena zen bi alderdiek bat egitea.

Nire lehen aukera, esan nizun bezala, nire zatia ordaintzea eta bezeroak eta bilketa eramatea da, bai eta dagozkion aktiboen zatia ere.



**Dirudien bezala, ez baduzu aukera hori aurreikusten, beste aukera bat izango litzateke egungo egoerarekin jarraitzea.**

Recyoil zuena da osorik, eta gure eremuko olio saltzen didazue. Aukera horri dagokionez, Gipuzkoatik ateratzeko eskatuko nizueke, **bai eta hasieratik izan dugun eta bete dugun eremuak errespetatzeko akordioa sinatzeko ere.**

Beste aukera bat litzateke bazkideen arteko akordio bat ixtea, Recyoil sartuta eta eremuak errespetatzeko akordioa sinatuta, baina aholkulariei galdetu beharko diegu.

Nire asmoa eta helburua beti izan da **enpresa bat bera ere ez ateratzea kaltetuta, eta duela hainbeste urte dugun eremuak errespetatzeko akordioak luze irautea, bion onurarako.**

Hitz egingo dugu.

**173.** Horregatik guztiagatik, LEK-k erabaki zuen IZk artxibo-proposamenaren oinarri zen preskripzioa ez zegoela behar bezala arrazoitua, eta jarduketak itzuli zizkion IZri, proposamena zentzu batean edo bestean zehaztu zezan; hau da, jarduketak juridikoki modu sendoago batean artxibatze den edo zehapen-prozedura bat hasteko (2019ko otsailaren 25ean egin zen).

**174.** Kontuan hartuta IZren eta LEKren jarduketak LDEn 27. artikuluan ezarritakoarekin bat datozela, ezetsi egin behar da alderdien alegazioa.

## **B. Ikuskapenean oinarrizko eskubideak urratzea**

**175.** EKOGRASen **seigarren alegazioak** prozedura deuseztatzea aipatzen du, 2016ko uztailaren 14an Etxarri-Aranatzen egin zen ikuskapenean oinarrizko eskubideak urratu zirela eta.

**176.** Horri dagokionez, adierazi behar da, LDLren 47. artikulua ezartzen duen bezala, IZren ebazpenak eta egintzak –ikuskapen-agindua eta ikuskatzaileek egoitzen ikuskapenetan egiten dituzten egintzak barne– errekurritu ahal izango dira, baldin eta defentsa-gabetasuna edo eskubide edo interes legitimoen kalte konponezina eragiten badiete. Errekurtsoak hamar eguneko epean aurkeztu beharko dira, kasuan kasuko lehiaren defentsako agintarien kontseiluan.

**177.** EKOGRAS enpresaren Etxarri-Aranazko egoitza ikuskatzeko agindua Nafarroako Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuko zuzendariak eman zuen. Nafarroako Foru Komunitateak ez duenez ebazpen-organorik lehiaren defentsaren arloan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluan jarri behar zen administrazio-errekurtsoa, baina ikuskatzaileek ez zuten inolako errekurtsoren berri.



**178.** Hori dela eta, epearen barruan ez denez errekurritu ikuskapen-agindua, ez eta ikuskapena bera ere, ez da aintzat hartuko ikuskapenean egindako akats bat, hiru urte beranduago.

**179.** Ondorioz, alegazioa ezetsi behar da.

## 2. Iraungitzea

**180.** LDLk eta haren Erregelamenduak ez dute legezko mugarik aurreikusten informazio erresebatuaren iraupenari dagokionez. Auzitegi Gorenak, 2016ko azaroaren 11ko 2418/2016 Epaian (errekurtso-zenbakia: 617/16; ECLI:ES:TS:2016:4998), 2014ko azaroaren 24ko Epaian ezarritako jurisprudentzia gogorarazi eta errepikatzen zuen (errekurtso-zenbakia: 4816/11; ECLI:ES:TS:2014:4745). Honako hau dio Auzitegi Gorenak bertan:

«Informazio erresebatuak bere lege-arauketa propioa du 16/1989 Legearen 36.3 artikuluan (orain 15/2007 Legearen 49.2 artikuluan), zehapen-espedita hasi aurreko fase gisa, eta ez da iraugitze-epeen mende geratzen, baina aurretiazko eginbide mota horri gehieneko epea ez ezartzeko legegintza-borondetari ezin zaio aurre egin segurtasun juridikoaren printzipioa aipatze hutsarekin (Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua). Izan ere, printzipioa ez da urratzen ikerketa-jarduketa jakin batzuk aldi batean edo bestean garatzen direlako, benetako prozedurei aplikatu beharreko iraugitze-araubidetik kanpo dauden aldetik».

**181.** Halaber, zera dio 2015eko urriaren 21eko Epaian (errekurtso-zenbakia: 1755/13):

«Informazio erresebatuak ez du iraugitze-eperik gure ordenamendu juridikoan, eta gauzatzen den epe hori ezin da zenbatu zehapen-espedita administratiboaren iraupena neurtzeko, Auzitegi Gorenak 2007ko abenduaren 26ko epaian ezarri zuen bezala, Lehiaren Defentsarako Espainiako Agintaritzaren espedita bati buruzko auzia aztertuta: LDLren 56. artikulua argi eta garbi adierazten du zehapen-espedita hasten denetik zenbatzen dela LDZko prozeduraren epea, eta horrek, jakina, zenbaketatik kanpo uzten du informazio erresebatuaren denbora».

**182.** EKOGRASEk, bere **hirugarren alegazioan**, eta RAFRINOREk, bere **bigarren alegazioan**, adierazten dute espedita iraugita dagoela, 35 hilabetez (2016ko martxoaren 15etik 2019ko otsailaren 25era arte) izapidetu delako informazio erresebatua. Horri dagokionez, berriz ere esan behar da, espedita honetan, informazio erresebatuaren helburua izan dela zehapen-prozedura abiarazteko nahikoa arau-hauste zantzu daudela uste izateko egintzak gauzatzea. Prozedura horretan, arau-hauste gisa tipifikatutako jokabide bat benetan gauzatu dela eta egileen erantzukizuna argitzeko izapidetze-egintzak egiten dira.



**183.** Zera zioen Auzitegi Gorenak 2007ko abenduaren 26ko 8599/2007 Epaian (errekurtso-zenbakia: 1907/2005; ECLI: ES:TS:2007:8599), Tubogas/Repsol auziari dagokionez:

«Aurretiazko edo prestatzeko eginbide horiek benetan justifikatzen dituen helbururako balio badute, alegia, zehapen-espedienteari bide ematearen egokitasunari buruz epaitzeko balio duten hasierako datuak eta zantzuak biltzea, eta desnaturalizatu eta espedientearen ezkutuko aukera bihurtzen ez badira, ezein arauk ez die epe jakinik ezartzen, eta, beraz, ez dute iraungipenik».

**184.** Kasu honetan, igarotako denbora informazio erreserbatuaren eginkizunaren beraren testuinguruan jarri behar da, kontuan hartuta hiru egoitza desberdinetan egin zirela ikuskapenak, eta, ondorioz, bildutako dokumentazioa sakon aztertu eta garbitu zela, informazioa masiboki eskatu zitzaizela Gasteizko HORECA establezimenduei, merkatu adierazgarriaren eremua zehaztasun handiagoz zehazteko, eta Lehiaren Euskal Kontseiluari prozeduraren artxibo bat proposatu zitzaizela, baina ez zela onartu. Ondorioz, berriro aztertu zen espedientearen zegoen informazioa.

**185.** Informazio erreserbatuan gauzatutako egintzetako bat bera ere ezin da ez-beharrezkotzat jo, eta haren helburuen artean ezin daiteke egon ondorengo espedientearen iraupena murriztea. Aitzitik, eta aipatutako jurisprudentziaren arabera, aurretiazko ikerketa-jarduketek arau-haustearen zantzuak agertu bezain laster, zehapen-espedientea ireki zen.

**186.** Ondorioz, informazio erreserbatua behar den denboran igaro denez, eta LDLk zehapen-prozedura irautzeko ezartzen dituen 18 hilabeteak igaro ez direnez, alegazioa ezetsi behar da.

### **3. Udalek ez dituzte kontratu asko lizitatu**

**187.** EKOGRASen **zortzigarren alegazioak** adierazten du aurkeztu duen salaketaren xedea dela udal askok kontraturik ez lizitatzeari aurre egitea; LEA/AVCk ez du ezer egin horien kontra, eta lehia egotea eragotzi dute.

**188.** Horri dagokionez, adierazi behar da salaketak EKOGRAS eta RAFRINOR enpresen artean merkatua erdibanatzearen aipamena egiten duela. Hala ere, gogorarazi behar da lehiaren defentsaren arloko zehapen-espedienteak ofizioz hasten dituela IZk, bere ekimenez edo Kontseiluaren ekimenez, edo salaketa bidez, LDLren 49.1 artikulua ezartzen duen bezala. Horregatik, salaketan esaten dena alde batera utzita, IZk ez balu ikusi LDLren arau-haustearen arrazoizko zantzurik, espedientea ez zukeen hasiko.



- 189.** Hala ere, bidezkoa da adieraztea, halaber, lehiaren defentsarako agintariek jakiten dutenean eragozpenak daudela merkatuetan benetako lehiari eusteko, administrazio-zuzenbidearen mendeko egintzak edo legea baino maila txikiagoko xedapen orokorrak direla eta, egintza edo xedapen horiek aurkara ditzaketela administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.
- 190.** Era berean, jakiten dutenean merkatuetan benetako lehiari eusteko eragozpenak administrazio publikoetatik datozela, baita ere, sustapen-lanak egin ditzakete haien aurrean, eta merkatuetan lehiari eusteko edo berrezartzeko gomendioak eman.
- 191.** Kontratazio publikoaren arloan, LEA/AVCk hainbat jarduketa egin ditu administrazio publikoen aurrean –baina ez landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuak kontratatzeari dagokionez–, administrazio horiek lehia askerako oztopoak ken ditzaten, hala nola prozedura irekiaz bestelako kontratazio-prozedurak gehiegi erabiltzea.
- 192.** Bestalde, EKOGRASek adierazi du publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetara joateko gonbidapena jaso bazuen ere, uko egin ziola, baina ez merkatua erdibanatzeko akordiorik zegoelako, baizik eta, egoitza logistikorik ez zuenez, olio hori biltzeak errentagarritasunik ez zuelako, eta bilduko lukeen olioak ez zukeelako aukerarik emango logistika-instalazio baten inbertsioa errentagarri bihurtzeko.
- 193.** Baieztapen horrek logika enpresariala izango luke, merkatu adierazgarri horren ezaugarriak kontuan hartuta, baina sinesgarritasuna galdu zuen; izan ere, egoitzen ikuskapenean egiaztatu zen uko egiteko gutun guztiak «Rafrinor eremua» izeneko karpeta batean artxibatzen zirela, eta, horren ondorioz, IZk pentsatu zuen merkatua erdibanatzen zutela. Iritzi hori aipatutako ikuskapenean bildu ziren mezu elektronikoen bidez egiaztatu zen.
- 194.** Ondorioz, alegazioa ezetsi behar da.

#### **4. Ez dago lehiaren aurkako akordiorik**

- 195.** RAFRINORen **hirugarren alegazioan** aipatzen da ez dagoela lehiaren aurkako akordiorik; hain zuzen ere, merkatuaren ezaugarriek hala zehaztu dutelako jokatu dute enpresek, beren kabuz eta alde bakarretik.
- 196.** RAFRINORen arabera, aipatutako aldian, merkatua erabat garatzeko zegoen, eta RAFRINOR enpresaren beraren ahaleginei esker garatu zen, neurri handi batean, kontuan hartuta ez dela udalek eta mankomunitateek nahitaez eman beharreko



zerbitzu publikoa (eta, beraz, kontratazioa da). Garatzen hasi berria zen horretan, RAFRINOR etxeko landare-olio erabilia biltzeko zerbitzuak ematen hasi zen udaletan eta mankomunitateetan, furgonetak erabilia. Hala ere, sistema horren eraginkortasunik ezaren eta bitarteko horiek bildutako olio kantitate eskasaren ondorioz, zerbitzu horren antolaketa birplanteatzera eraman zituen RAFRINOR eta administrazio publikoa bera. Horren ondorioz, 2009an eredu aldatu, eta edukiontziak instalatu ziren bide publikoan, merkatuan berriro hutsetik hasita.

- 197.** Egoera horretan erabat berriak ziren zerbitzuei ekin zitzaien, ziurgabetasun handiz, prozedurarik eta bitartekorik ez zegoelako eta inbertsio-premia handiak zeudelako, bil zezaketen kantitateari eta balizko diru-sarrerei zegokienez ziurgabetasun osoa bazuten ere, eta, beraz, RAFRINOR enpresarentzat bideraezina zen bere ezarpen naturaleko eremutik kanpoko udalerrietara hedatzea.
- 198.** RAFRINORen esanetan, ezinezkoa da landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko zerbitzuak ematea bilketa-gunetik urrun dagoen instalazio batera eramanda edo Gipuzkoan instalazio bat ezarrita.
- 199.** Era berean, RAFRINORek peritu-txosten ekonomiko bat aurkeztu du – konfidentziala izatea eskatu du–, eta haren bidez frogatu nahi du RAFRINORek merkatuan izan duen jokabidea, ordura arte existitzen ez zen jarduera bat hasi zuen eremuan jardunez, batez ere Bizkaiko udalerrietan, ekonomikoki bideragarria den bakarra dela, aipatutako azterketan sakonki aztertzen diren arrazoiengatik.
- 200.** Alegazio horri dagokionez, adierazi behar da IZk bere ebazpen-proposamenean adierazi zuela merkatu hori tokikoa dela eta beharrezkoa dela olio biltzeko guneetatik gertu azpiegiturak izatea, negozioaren errentagarritasuna bermatzeko.
- 201.** Hala ere, LEK-k ulertezintzat jotzen ditu egoitzen ikuskapenetan jasotako mezuetan erabilitako esamoldeak; besteak beste, «*gure errespetuzko akordioei kalterik egin gabe*» (2002) (807. folioa), «*Ekograsek Gipuzkoako udalerriak berreskuratuko lituzke*» (2002) (807. folioa), «*erosteko interesa lehia geldiarazteko zen, pantaila gisa erabili, eta kontrolatutako enpresa batekin merkatuan espazio bat hartu ahal izateko*» (2013/01/18) (789. folioa), «*eremuak errespetatzeko akordioa bezala*» (2013/01/23) (793. folioa), «*eremuak errespetatzeko akordioa daukagu*» (2013/01/23) (793. folioa), «*bai eta hasieratik izan dugun eta bete dugun eremuak errespetatzeko akordioa sinatzeko ere*» (2013/01/23) (793. folioa), «*Gipuzkoatik ateratzeko eskatuko nizueke*» (2013/01/23) (793. folioa), «*nire asmoa eta helburua beti izan da enpresa bat bera ere ez ateratzea kaltetuta, eta duela hainbeste urte dugun eremuak errespetatzeko akordioak luze irautea, bion onurarako*» (2013/01/23) (793. folioak).



**202.** Ondorioz, eta enpresaren jarduera olio tratatzeko instalazioetatik gertu dauden eremuetan kontzentratzeak logika enpresariala duela onartuta ere, horrek ez du eragozten merkatuak erdibanatzeko akordioak aldi berean egitea, aurreko apartatuko eta «Frogatutako egitateak» apartatuko adierazpenek frogatzen duten bezala. Hortaz, alegazioa ezetsi behar da.

## **5. Lehiaren aurkako ustezko jokabidearen hasiera-data**

**203.** RAFRINORen **laugarren alegazioak** adierazten du ebazpen-proposamenak huts egin duela lehiaren aurkako ustezko jokabidearen hasiera 2002an ezartzean eta, beraz, ustezko arau-haustea 2002tik 2013ko irailera arte iraun zuela zehaztean. Hala, adierazten du RAFRINORek 2003. urteko irailera arte ez zituela amaitu udalekin eta mankomunitateekin etxeko landare-olio erabilia furgoneta bidez biltzeko zituen lehen kontratuak, eta, zehazki, hiru udalekin: Gueñes, Alonsotegi eta Zierbena.

**204.** Horri dagokionez, eta, zehapen-espeditentean jasota dagoenez, adierazi behar da EKOGRASi Etxarri-Aranatzen egindako ikuskapenean dokumentu mekanografiatu bat aurkitu zela –ez zuen datarik, baina 2002. urtea aipatzen zuten oharrak zeuden–, ECOGRAS-RAFRINOR izenekoa, eta errespetuzko akordioak aipatzen ziren. Horregatik ezarri zuen IZk 2002an jokabide arau-hauslearen hasiera-data.

**205.** Hori dela eta, eta IZk alegazioa onestea proposatu duen arren, LEK-k, dokumentazioa eta frogatutako egitateak ikusi ondoren, erabaki du alegazioa ez onestea.

## **6. Eragindako merkatuaren negozio-bolumena kalkulatzeko**

**206.** RAFRINORen **bosgarren alegazioak** adierazten du ez dagoela ados ebazpen-proposamenak eragindako merkatuaren negozio-bolumenari (EMNB) dagokionez egin duen kalkularekin, bai zenbatekoari dagokionez, bai kontuan hartutako aldiari dagokionez (2009-2013).

**207.** Lehenik eta behin, LEK-k adierazi du 2009-2013 aldia hartu duela kontuan EMNBa kalkulatzeko, ebazpen-proposamenean adierazi zen bezala, EKOGRASek ezin izan duelako 2009. urtea baino lehenagoko fakturazio-daturik eman.

**208.** Beraz, 2009-2013 aldia hartu da kontuan, bi enpresek urte horietarako fakturazio-bolumenak aurkeztu dituztelako. Bestela, 2004-2013 aldia erabili izan balitz RAFRINORen EMNBa kalkulatzeko, eta 2009-2013 aldia EKOGRASen EMNBa





kalkulatzeko, lortuko litzatekeen jokabideko partaidetza-kuota ez litzateke koherentea izango.

**209.** Bigarrenik, EMNB zifraren kalkuluari dagokionez, LEK-k egokitzen jo du instruktoreek LEKri igorritako espedientearekin batera doan azken txostenean egindako proposamena. Proposamen horren arabera, RAFRINORen EMNBa kalkulatzeko, bi kanaletan (HORECA eta Administrazio Publikoa) bildutako olio kantitatea (kg) hartu behar da oinarritzat.

Hala, RAFRINORek olio guztia saltzeagatik lortu dituen diru-sarrerak bi kanaletan (HORECA eta Administrazio Publikoa) bildutako olioaren ehunekoaren arabera hainbanatzen dira, eta, ondoren, olio biltzeagatik lortutako diru-sarrerak eta administrazio publikoaren kanalarri dagokion olio saltzeagatik lortutako diru-sarrerak batu, eta EMNBa lortzen da.

**210.** Bestalde, 2020ko urtarrilaren 15ean egindako bilkuran, LEK-k jarduketa osagarri bat egiteko eskatu zion IZri, beharrezkoa zen informazioa biltzeko: (i) EKOGRASi eskatzea administrazio publikoen edukiontzien bidez eta HORECA kanalean bildutako olio kantitatea (kg) banakatzeko, eragindako merkatuaren negozio-bolumena zehaztasunez kalkulatzeko, eta (ii) EKOGRASi eta RAFRINORi eskatzea enpresaren negozio-bolumen osoa (2019koa).

**211.** Zehapena erabakitzeke (ebazpen honen VII. epigrafean daude xehetasunak), zenbatespen ekonomiko batean oinarrituta egin da, jarduketa osagarri horretan lortutako informazioa kontuan hartuta (2.156.667,50 euro, EKOGRASi dagokionez).

**212.** 2020ko uztailaren 3an, EKOGRASEk adierazpen pribatu bat aurkeztu zuen. Bertan adierazten zen EMNBaren zifra 2.156.188 eurokoa zen. Jarduketa osagarriaren ondorioz kalkulaturako kopuruarekiko (2.156.667,50 euro) aldea hautemanetina da, eta hori hartu denez kontuan, ez da proposaturako aldaketa onetsi, ez baitie eragiten EMNBaren kuotaren kalkuluari eta zehapenaren kalkuluari.

## **VII. ZEHAPENAK ZEHAZTEA**

### **1. Auzitegi Gorenak adierazitako irizpideak**

**213.** Erabakitzen den zehapena bat etorri beharko du 2015eko urtarrilaren 29ko Auzitegi Gorenaren Epaian adierazitako irizpideekin (ECLI: ES:TS:2015:112). Honako hauek dira, funtsean:

- LDLren 63.1 artikuluan aurreikusitako portzentajezko mugak zehapen-bitarte baten gehieneko mailatzat hartu behar dira, eta zehapenak jokabideen astuntasunaren



arabera bereizi behar dira. Muga horiek «kasu bakoitzean diruzko zehapenaren gehieneko balioa ezarriko dute, eta gutxieneko balioan hasten den eskala batean, korrelazio-portzentajearen gehieneko maila izango dira». «Dagokion kategoriaren barruan dentsitate juridikorik handiena duen jokabide arau-hausleari dagokion zehapen-gogortasunik handiena ezartzen duten zifra portzentualak dira. Hiru portzentaje horietako bakoitza, dagokion kategoriako arau-hausterik astunenari aplikatutako erantzun zehatzailearen gehieneko balioa diren aldetik, erreferentzia izan behar dira, horietatik hasi eta beheraka, gainerako arau-hausteei ezarri beharreko isuna kalkulatzeko».

Isunaren ehunekoak zer oinarriren gainean kalkulatu behar den, berriz (% 10 kasu honetan, arau-hauste oso astuna delako), «isuna ezarri aurreko ekitaldian enpresa arau-hausleak izandako negozio-bolumen osoa» aipatzen du LDLren 63.1 artikulua, eta, kontzeptu horrekin, legegileak, Auzitegi Gorenak adierazten duen moduan, «azpimarratu nahi izan du ehuneko-oinarri gisa erabiltzen duen negozio-zifra ez dela zati batera mugatzen, bolumen horren “osotasunera” baizik».

## 2. Zehapena erabakitze metodoa

**214.** Premisa horiek oinarritzat hartuta, ondorioztatu behar da ebazpena eman aurreko ekitaldian enpresa arau-hausleak izandako negozio-bolumen osoaren % 0 eta % 10 bitartekoa izan behar dela zehapena. Zehapen-bitarte horren barruan, LDLren 64. artikuluan aurreikusitako graduazio-irizpideen arabera kalkulatu behar da zehapena.

**215.** Lehiaren araudia hausteagatiko zehapenak ezartzeko metodoa bi fasetan banatzen da:

- Lehenik eta behin, **zehapen-tasa orokorra** ezartzen da, arau-haustearen ezaugarrien arabera.
- Jarraian, **banakako zehapen-tasa** ezartzen da, enpresa bakoitzaren jokabide zehatzaren arabera.

**216. Guztizko zehapen-tasa** zehapen-tasa orokorra eta banakako zehapen-tasa batuz lortzen da.

Eurotan ordaindu beharreko isuna enpresak 2019an izan zuen negozio-bolumen osoari guztizko zehapen-tasa aplikatuta kalkulatu da.

**217.** 2015eko urtarrilaren 29tik aurrera Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ezarritakoari jarraikiz, erakunde arau-hausle bakoitzari bere guztizko zehapen-tasa ezarri eta gero, azken egiaztapen bat egin behar da, ordaindu beharreko zehapena arau-haustearen tamaina errealekiko proportzionala dela bermatzeko.



### 3. Jokabidearen balorazio orokorra egiteko irizpideak

**218.** Aztertutako jokabidea arau-hauste bakar eta jarraitua da, eta inputatutako enpresen artean borondate-akordio batean datza, landare-olioa biltzeko eta kudeatzeko merkatua EAEko toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) esleitutako kontratuen bidez banatzeko; horrela, enpresa bakoitza adostutako eremuko toki-administrazioek deitutako lizitazioetara soilik aurkeztuko da.

**219.** Beraz, arau-hauste oso astuna da (LDLren 62.4.a artikulua), eta isuna ezarri aurreko ekitaldian enpresa arau-hausleak egindako negozio-bolumenaren % 10era arteko isunarekin zehatu ahal izango da (63.1.c artikulua).

**220.** Hau da aipatutako enpresek 2019an izan zuten fakturazioa:

ENPRESA	GUZTIZKO NEGOZIO-BOLUMENA
	2019 (€)
EKOGRAS	1.446.579,40
RAFRINOR	2.537.532,88

**221.** Enpresa arau-hausle bakoitzaren guztizko negozio-bolumenari aplikatuko zaion zehapen-ehunekoa LDLren 64.1 artikulua ezarritako graduazio-irizpideak erabiliz kalkulatu beharko da, lehen aipatutako Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren irizpideei jarraikiz.

**222.** Espediente honetan inputatutako enpresek bakoitzari zegokion jarduketa-eremua adostu zuten, eta, ondorioz, enpresa bakoitza bere eremuko udalek eta mankomunitateek olio biltzeko deitzen zituzten lizitazioetara aurkeztu ziren. Beraz, enpresa bakoitzak uko egiten zion beste enpresak toki-administrazio bati zerbitzua ematen zion udalerritan lehiatzeari.

**223.** Eragindako merkatuaren ezaugarriei dagokienez (64.1.a artikulua), jokabideak eragindako merkatua, adierazi den bezala, landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko da, EAEko toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) esleitutako kontratuen bidez. Ez dira merkatuan sartzen ostalaritza-establezimenduetan, jatetxeetan eta cateringetan (HORECA) erabilitako olioaren bilketa, ez eta ostalaritza-kateen merkatua eta olio balarizatze merkatua ere.

Tokiko merkatua da, eta, bertan, ezinbestekoa da azpiegitura bat izatea landare-olio erabilia biltzeko guneetatik gertu, bezeroei zerbitzuaren kalitatea eta jardueraren errentagarritasun ekonomikoa bermatzeko. Hori, esan bezala, oztopo ekonomikoa izan daiteke enpresen negozioaren hedapenerako.

Espedientean jasotako datuen arabera, merkatuan jarduten duten beste enpresa batzuk dauden arren, enpresa arau-hausleak EAEko 185 udalerritan ematen dute olio



biltzeko zerbitzua. Beraz, merkatua erdibanatzeko jokabideak eragindako merkatu adierazgarriko enpresa arau-hausleen baterako merkatu-kuota % 87koa da. Portzentaje handia bada ere, zehaztu egin behar da, kontratuen tamaina oso desberdina delako udalerrien tamainaren arabera (64.1.b artikulua).

**224.** Arau-haustea eragindako merkatu geografikoa EAeko da (64.1.c artikulua).

**225.** Espedientea ireki zaien enpresek denbora-tarte berean izan dituzte jokabideak; hau da, 2002tik 2013ko irailera arte. (64.1.d artikulua).

Egiaztatu da, 2013ko irailetik aurrera, bi enpresek arau-hausteari amaiera emateko jarduketak egin dituztela; izan ere, data horretatik aurrera, kontratu berberak lortzeko lehiatu dira hainbat toki-administrazioak landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko deitutako lizitazioetan, frogatutako egitateen apartatua jaso den bezala.

**226.** Merkatua erdibanatzeko enpresen koordinazioan xedeagatik murrizketa egoteak ez du esan nahi jokabideek merkatuan izan dituzten ondorioak ebaluatu behar direnik (64.1.e artikulua). Hala ere, lehen adierazi denez, espediente honetan egiaztatutakoa bezalako enpresen arteko akordio batek, automatikoki, lehia nabarmen faltasutzea dakar, eta akordioan parte hartzen duten enpresei baino ez die mesede egiten, gainerako lehiakideekiko abantaila ematen dielako, eta gainerako lehiakideei EAeko toki-administrazioak esleitutako kontratuen bidez landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatuan sartzea eragozten edo nabarmen zailtzen dielako.

**227.** Arestian aipatutako irizpideek arau-haustearen balorazio orokor bat egitea ahalbidetzen dute, eta, horiek aplikatuz, **zehapen-tasa orokorra % 1,5koa da.**

#### **4. Jokabidearen banakako balorazioa egiteko irizpideak**

**228.** Zehatutako enpresa bakoitzaren jokabidea baloratzeari dagokionez, komeni da hainbat faktore osagarri kontuan hartzea, zehapenak enpresak arau-haustean izan duen partaidetza erreala isla dezan.

Aipatu bezala, **jokabidearen iraupena** (64.1.d artikulua) berbera da bi enpresen kasuan: 11 urte. Beraz, ez da egokia irizpide horren balorazioa banaka bereiztea.

Hurrengo taulak enpresa arau-hausleek eragindako merkatuan izandako negozio-bolumena jasotzen du (EMNB), arau-haustea iraun duen aldian. Datu horiek LEA/AVCK eskatuta enpresek eman duten informaziotik ondoriozta daitezke. EAeko toki-administrazioak esleitutako kontratuen bidez landare-olio erabilia biltzeagatik eta saltzeagatik eragindako fakturazioa da. Halaber, **enpresa bakoitzaren partaidetza-kuota** ikusten da taulan (64.1.b. artikulua).



ENPRESAK	ERAGINDAKO MERKATUAREN NEGOZIO BOLUMENA (*) (**) (EMNB, €)	EMNB osoarekiko %
EKOGRAS	2.156.667,50	% 50,59
RAFRINOR	2.106.489,00	% 49,41

(\*) EKOGRASek adierazi du 2009tik aurrerako egiazko informazioa eman dezakeela, eta, beraz, data horretatik aurrera eman ditu datuak. RAFRINORek, berriz, 2004tik aurrerako informazioa eman du.

2009tik aurrera bi enpresei buruzko datuak ditugunez, 2009-2013 aldia erabili da EMNBa eta enpresa bakoitzak bertan duen kuota kalkulatzeko.

(\*\*) Bi enpresen EMNBaren zifra kalkulatzeko, olioaren saltzeagatik lortutako diru-sarrerak hainbanatu dira, kanal bakoitzean jasotako olio kantitatearen arabera (kg): administrazio publikoak (etxekoa) eta ostalaritza (HORECA). Azkenean, administrazio publikoen merkatuaren fakturazioa baino ez da kontabilizatu EMNBan.

**229.** Azkenik, jarraian datorren **inguruabar aringarria** (64.3 artikulua) hartu da aintzat zehapen-tasa graduatzeko.

64.3. artikulua. Isunaren zenbatekoa zehazteko orduan, honako inguruabar aringarri hauek izango dira kontuan, beste batzuen artean:

a) Arau-haustea amaitzea eragingo duten jarduketak gauzatzea.

(...)

**230.** Kasu honetan, espedientea ireki zitzaienek 2013ko irailean eman zioten amaiera arau-hausteari, adierazi den bezala; LEA/AVCk egindako jarduketak hasi aurretik, beraz (informazio erreserbatua eta etxek etxeko ikuskapena, eta, ondoren, zehapen-espedientea hastea). Horregatik, % 0,5eko aringarria aplikatzen zaie bi enpresei.

**231.** Enpresa arau-hausle bakoitzari aplikatu behar zaion **banakako zehapen-tasa** (2019ko guttizko negozio-bolumenarekiko), dagokion partaidetzaren arabera eta aurreko puntuan adierazitako aringarriak kontuan hartuta, honako taula honetan agertzen da:

ENPRESA	BANAKAKO ZEHAPEN-TASA
EKOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL	-0,5
RAFRINOR SL	-0,5

## 5. Zehapen-tasa eta zehapena egokitzea

**232.** Auzitegi Gorenaren epaiari jarraituz, arestian azaldutako faktoreen multzoak –(i) arau-haustearen larritasuna, (ii) eragindako merkatuaren ezaugarriak eta tamaina, (iii) jokabidearen eremu geografikoa, (iv) arau-hausleek jokabidean duten parte-hartzea eta (v) inguruabar aringarri edo astungarriak– aukera ematen du enpresen



jokabidearen dentsitate antijuridikoaren balorazio orokorra zehazteko, 2019ko guztizko negozio-bolumenaren % 10era arteko zehapen-eskalan.

Erakunde arau-hausle bakoitzari aplikatu behar zaion zehapen-tasa, jokabidearen larritasunaren eta inguruabarren arabera, eta jokabide horretan duen parte-hartzearen arabera, honako taula honetan agertzen da:

ENPRESA	ZEHAPEN-TASA OROKORRA	BANAKAKO ZEHAPEN-TASA	ZEHAPEN-TASA (GUZTIZKO NEGOZIO-BOLUMENAREN %)
ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL	1,5	-0,5	1,0
RAFRINOR SL	1,5	-0,5	1,0

**233.** Zehapen mota horiek egokitzen jotzen dira, enpresen arau-haustearen larritasunaren eta ezaugarrien arabera. Hala eta guztiz ere, ehuneko hori enpresaren guztizko negozio-bolumenari aplikatzeak zehapen ekonomiko neurrigabea ekar lezake jokabidearen benetako garrantziari dagokionez, arau-haustea eragindako merkatuko jardura nahiko txikia denean guztizko negozio-bolumenari dagokionez.

Aurreko atalean lortutako zehapen-tasatik eratorritako isuna arau-haustearen dimentsio errealarekiko proportzionala dela egiaztatze aldera, disuasio-isun proportzionalizat hartzen den isunaren balioa kalkulatu da enpresa bakoitzarentzat. Proportzionaltasun-muga deritzo zenbateko horri<sup>18</sup>. Estimazio hori erreferentzia-balio gisa erabiltzen da, eta hortik gorako isuna neurritz kanpokoan izan daiteke.

Kasu honetan, enpresei dagokien zehapenak ez du aipatutako proportzionaltasun-muga gainditu, eta, beraz, zehapen-tasa osorik aplikatzen da.

**234.** Gauzak horrela, honako hauek dira enpresa arau-hausleei aplikatu behar zaizkien zehapenak:

<sup>18</sup> Proportzionaltasunaren edozein balorazio egiteko, beharrezkoa da erakunde arau-hausle bakoitzak jokabide oso zuhurraren bidez lor lezakeen onura ez-zilegia zenbatestea, eta disuasio-faktore gehigarri bat aplikatzea.

Alderdi horiek hainbat parametro ekonomikori buruzkoak dira, hala nola (i) enpresek lehiaren baldintzetan duten irabazi-marjina, (ii) arau-haustearen ondoriozko prezioen igoera eta (iii) dena delako merkatuko eskariaren prezio-elastikotasuna. Ahal izan denean, kontuan hartutako alderdi horiek enpresa arau-hausleek beraiek emandako datuetan oinarritzen dira, edota dagokion merkatu adierazgarriari buruzko datu-base publikoetan. Parametro horien gaineko kasuak oso zuhurrak dira, ikuspegi ekonomikotik arrazoizkoak izan behar baitira beti, eta zalantza izanez gero, enpresentzako balio onuragarrienak hartzen dira beti.



ERAKUNDE ARAU-HAUSLEAK	ZEHAPENA (€)
EKOGRAS	14.465,79
RAFRINOR	25.375,33

## VIII. ERANTZUKIZUNA

**235.** Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera –Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ere jasotzen du 2011ko azaroaren 14ko 761/2011 epaian (ECLI: ES:EAEJAN:2011:3435) eta 2012ko otsailaren 6ko 73/2012 epaian (ECLI: ES:EAEJAN:2012:3998), besteak beste–, administrazioaren erantzukizunaren eremuan ez da nahikoa jokabide tipikoa eta antijuridikoa izatea, erruduna izatea ere beharrezkoa baita.

**236.** Erruduntasuna elementu saihetsezina da zehapen-eskubidearen aplikazioari buruz ari garenean, eta beharrezkoa da gauzatutako jarduketa-espeditentean sartuta daudenei egoztea, bai dolu gisa bai zuhertasun falta gisa; hau da, subjektuak nahita jardutea edo kontziente izatea –eskutzen zitzaion diligenzia alde batera utzi izanagatik– bere egintzak lehia askeari eraso egin diezaiokeela edo egiten diola.

**237.** Aztertutako kasuan, espedientepeko enpresen erantzukizuna sortzen da EAEko toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) esleitutako kontratuen bidez landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkaturak erdibanatu delako, kontzienteki eta idatziz. Horretarako, bi enpresek uko egin diote lizitazio publikoetara aurkezteari, beste enpresak zerbitzua ematen duen udalerrri eta mankomunitateetan.

**238.** LDLren 1.1 artikulua urratzearen erantzule dira honako enpresa hauek:

- ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL; IFK: B20621264; izen komertziala: EKOGRAS.

- RAFRINOR SL; IFK: B95187027; izen komertziala: RAFRINOR.

## IX. BESTE ESKAERA BATZUEN AZTERKETA

### 1. Frogak

**239.** Proposatutako frogei dagokienez, zehapen-espeditentean sartuta, honako frogak hauek onesten ditu LEK-k:

- KKK jaunaren (Rafrinor enpresako zuzendariaren ondokoa, 2003tik) zinpeko aitortpena. Horren bidez, Gasteizko udalerriko agintarien aurrean 2010etik –edo



lehenagotik– Rafrinor enpresaren intereserako egindako merkataritza-jardueren fede ematen du, eta xehe-xehe azaltzen ditu.

- LLL jaunaren (Recyoil enpresako zuzendariaren ondokoa, 2008tik) zinpeko aitorpena. Horren bidez, Gasteizko udalerriko agintarien aurrean 2011tik –edo lehenagotik– Recyoil enpresaren intereserako (eta, beraz, Rafrinor enpresaren intereserako) egindako merkataritza-jardueren fede ematen du, eta xehe-xehe azaltzen ditu.
- Zubizarreta Consulting aholkularitza-enpresak egindako peritu-txosten ekonomikoa, Rafrinor enpresak merkatuan garatutako jokabidearen arrazoizkotasuna eta zilegitasuna egiaztatzen dituena, ikuspegi ekonomiko batetik.
- PSOEko bozeramailearen gutuna, 2010eko maiatzaren 24koa, Getxoko Udaleko Osoko Bilkurari zuzendua eta ebazpen-proposamenari egindako alegazioei 4. eranskin gisa erantsia.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren txostena, «Sukaldeko olio erabiliak. Ingurumen-arazoak, saneamendu-sareetako gorabeherak eta araztegietako tratamenduaren kostua» izeneko, 2015eko uztailekoa; ebazpen-proposamenari egindako alegazioei erantsi zaie, 5. eranskin gisa.

**240.** Halaber, LEK-k froga hauek **ezetsi** ditu, arrazoi hauengatik:

- Ekogras enpresari eskatzea adieraz dezala ea jarduera komertzialak egin zituen Gasteizko Udalaren aurrean 2010eko abendutik, gutxienez, eta prozeduran aurkez dezala horren inguruko froga dokumentala.

Ezetsi egin da, EKOGRASek alegazioetan adierazi duelako zer eskatzen duen RAFRINOREk, eta eskatutako froga dokumentala aurkeztu duelako.

- Kontseiluak KKK jaunari eskatzea, ikustaldi baten barruan, aipatutako zinpeko adierazpenaren edukia berresteko. Adierazpen hori ebazpen-proposamenari egindako alegazioei erantsi zaie, 1. eranskin gisa.

Ezetsi egin da, pertsona horrek notario aurrean egindako adierazpenak egiazkoak direla zalantzan ez jartzeagatik.

- Kontseiluak LLL jaunari eskatzea, ikustaldi baten barruan, aipatutako zinpeko adierazpenaren edukia berresteko. Adierazpen hori ebazpen-proposamenari egindako alegazioei erantsi zaie, 2. eranskin gisa.

Ezetsi egin da, pertsona horrek notario aurrean egindako adierazpenak egiazkoak direla zalantzan ez jartzeagatik.





- Kontseiluak MMM jaunari eskatzea, ikustaldi baten barruan, aipatutako txosten ekonomikoaren edukia berresteko. Adierazpen hori ebazpen-proposamenari egindako alegazioei erantsi zaie, 3. eranskin gisa.

Ezetsi egin da, ez delako zalantzan jarri aipatutako txostenaren egiletza.

- Ebazpen-proposamenak huts egiten duela lehiaren aurkako ustezko jokabidearen hasiera 2002an ezartzean eta, beraz, ustezko arau-haustearen iraupena 2002tik 2013ko irailera arte zehaztean.

Ezetsi egin da, 2002an akordioak zeudela egiaztatzen duen agiri bat dagoelako espedientean.

- EKOGRA Si dagokion EMNBaren zifraren ordeez 2.156.188 jartzea.

Ezetsi egin da, ez diolako eragiten ez EMNBari dagokion kuotaren kalkulari ez zehapenaren kalkulari.

## 2. Konfidentziasuna

**241.** LEK-k konfidentziasun-eskaera hauek **onetsi** ditu, eta pieza bereizi hauek formalizatzeko agindu:

- 6. pieza bereizia: RAFRINORek egindako konfidentziasun-eskaera, ebazpen-proposamenari egindako alegazioen 3. eranskinari dagokionez (peritu-txosten ekonomikoa).

Onetsi egin da, negozio-sekretuak dituelako eta horiek zabaltzeak kalte larria eta atzeraezina eragingo liekeelako (3.013-3.156 bitarteko folioak).

- 7. pieza bereizia: RAFRINORek 2019ko negozio-bolumenari buruz egindako konfidentziasun-eskaera (3.213. eta 3.214. folioak).

Partzialki onetsi da. Konfidentziala da negozio-bolumenaren lurraldekako banakapena, baina ez da konfidentziala guztizko negozio-bolumenaren zifra, jabari publikoko iturrietan eskuragarri baitago, Merkataritza Erregistroan, adibidez.

- 8. pieza bereizia: RAFRINORek egindako konfidentziasun-eskaera, ikustaldia egin ondoren aurkeztutako idazkiaren 1. eranskinari dagokionez (adierazpen sinatu bat).

Onetsi egin da, edukia informazio sentikortzat jotzen baita (3.393-3.396 bitarteko folioak).

## X. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

**242.** Aurreko guztia aintzat hartuta, Lehiaren Euskal Kontseiluak honako hau ebazten du:



- a) Arau-haustea dela adieraztea, 2002tik 2013ko irailaren 27ra arte EAEko toki-administrazioek (udalek eta mankomunitateek) esleitutako kontratuen bidez landare-olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko merkatua banatzeko akordioa egiteagatik.
- b) Arau-haustea oso astun gisa tipifikatzea, 62.4.a) artikularen arabera.
- c) Honako hauek deklaratzeko arau-hauste horren egile eta arduradun:
- ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL; IFK: B20621264; izen komertziala: EKOGRAS.
  - RAFRINOR SL; IFK: B95187027; izen komertziala: RAFRINOR.
- d) Honako zehapen hauek jartzea:
- ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO SL (EKOGRAS)  
**14.465,79 €.**
  - RAFRINOR SL (RAFRINOR)  
**25.375,33 €.**
- e) Enpresa arau-hausleei agintzea etorkizunean ez dezala egin ebazpen honetan tipifikatu eta zehatutako jokabideen antzekorik
- f) Zehapena ezarri zaien enpresei agintzea LEA/AVCko Ikerketa Zuzendaritzaren aurrean justifikatu dezatela ezarritako isunak ordaindu dituztela eta ebazpena osorik bete dutela hilabeteko epean, gauzatzen den unetik zenbatzen hasita.
- g) Proposatutako frogak egitea onestea, IX. epigrafean adierazitakoaren arabera.
- g) Proposatutako frogak egitea ezestea, IX. epigrafean adierazitakoaren arabera.
- i) Proposatutako konfidentzialtasun-eskaerak onestea, IX. epigrafean adierazitakoaren arabera.

**252.** Jakinaraz bekie ebazpen hau LEA/AVCko Ikerketa Zuzendaritzari eta MLBNko Lehiaren Zuzendaritzari, eta jakinaraz bekie salatzaileri eta interesdun guztiei, jakin dezaten ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duela eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.